

# ek!

...eta kitto!  
Euskara Elkartearen astekaria

2020ko urriak 2 - 1157. zenbakia

## ELKARLANEAN AHULENEI LAGUNTZEN



### Recalde

Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

Miopia ebakuntza, kataratak  
eta presbiziaren kirurgia



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844 • [www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)

# Ate irekien jardunaldiak

urriaren 5etik 16ra

Dohainik proba dezakezu saio bat baino gehiago. Lehentasuna ikaste berriek izango dute.

Gehienez 10 pertsona taldeko.

Elkargunea: **LORE YOGA\***  
Errebal kalea 15,  
20600 – Eibar



  
**KORRIKALARIEN  
KLUBA**

AI-Az 20.30H



  
**ENTRENAMENDU  
FUNTZIONALA**

Ar-Og 20.30H

hello@helmethouse.es  
T. 943 849 310

—FIXME

helmet house

lore yoga

# Eskutitzak



## Iruña-Veleia Argitu

ATA AMA NEBA REBA SABA SEBA MONA... Hain dira erakar-garriak, bereziak eta goxoak. Familia partaideen izenekin sortutako hitz joko bitxia. Ze okurrentziai i

Sarritan etortzen zaizkit gogora, eta hortxe ikusten ditut hitzok, banaka edo binaka, bokaleak erantzten, jolasean...dantzatan. Umeentzat ikasketak errazteko idatziak izan ote dira, edo haur-kantu zahar baten errepika agian? Nork eta zertarako idatzi zituen? Egungoak dira ala antzinakoak?

Ez dakit. Baina jakitea nahiko nuke. Edo gehiago, beharra dut, premia, barru-barruko jakin-mina.

Orain dela 14 urte azaldu ziren hitzok, ez -pdf formatoan ezta ere paper euskarrian. Terra sigilata gorrian, ontzi zati txiki batean zizelkatuta daude.

Hamalau urte anonimoa den hitz-jokoaren egile eta intentzioaren peskisan. Bide luze horretan, teoriak-kontrateoriak, dogmak eta linguistika arauak, aldekoak eta kontrakoak, sententzia eta errekursoak, baita egunkari horri beteak ere. Baina ganorazko laborategi azterketa tekniko argigarriak ez.

Jose Mari Lejardi "Gabixola" k apustu serioa egin du, ondo baino hobeto baitaki zein den argibidea eta nork eman beharko lukeen agindua.

Arabako Foru Aldundiari zuzendu zaio eskaera zehatza eginez: Arkeologia piezen gainazalak aztertzen trebatuak diren laborategietan azterketa egokiak egitea.

Zientziaren bitartez aurrera egiteko apustua egin duten Iruña-Veleia Argitu taldeko gose grebalariekin batera Gabixolak gaur **72 egun gose greban** beteko ditu.

Ibon Rokandio Etxeberria

## Eibarren "gora eusko gudariak" esaterik ez dago

45 urte bete berri dira Txiki, Otaegi eta beste hiru borrokalaria fusilatu zituztenetik. Ordutik, oztopoak oztopo, irailaren 27a Gudari Eguna da euskaldun askorentzat eta herri eta auzo ez gutxitan gogoratzen ditugu gure hildakoak.

Eibarren, Roberto Perez (poliziak tiroz akatua), Xabier Gorritxategi (Goardia Zibilaren aurkako eraso batean eroria), Felix Badiola eta Jose Antonio Garate "Sua" (lehergailu batek eztanda egin ostean hilak), Josu Retolaza (espetxeak hila), Espe Arana eta Jokin Alfonso (Estatu terrorismoaren biktimak) eta sasia hil zitzaigun Jose Luis Arrieta "Azkoitti" izaten ditugu gogoan.

Domeka honetan ere oroitu ditugu. Ekitaldi xume eta hunkigarrian, eibartar talde ederra (ahoz aho zabaldua izanda ere, baimenik ematen ez dutelako edo emango ez duten beldur). Txalaparta, hitz eta abesti batzuen ostean, lasaitasun osoz amaitu da, inolako arazorik gabe. Ikurrina gainean gelditu dira guk, maitasunez, lagatako loreak.

Bat batean, hantxe ertzainak, beraien moztorro beldurgarri horiekin. Gorrotoarekin etorri dira, argazkiak apurtzera eta ikurriña eta loreak eramatera, denak mordoilo bat eginda. Une horretan, "Gora eusko gudariak!" oihukatu du norbaitek, guztiok sentitzen genuena laburtuz. Horrek sutan jarri ditu eta karneta eskatu digute. Komisaldegira eramango gaituzten mehatxupean, datuak eman behar. Haiek esatera, baimendu gabeko ekitaldi batean parte hartzeagatik isuna jasoko dugu etxean. Ez txikia. Edo isuna ez den zerbaite ere etorriko zaigu?

Nire galdera, zergatik jarri zituen sutan esaldi horrek?

Ez dugu isunik merezi!

Agur eta ohore, lagun, senide, gudariak.

Irene Zarrua

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**NAHASTE ETORRI.**- Nahastatuta etorri. "Gari eta lohi, nahaste dator".

**NAHASTATZAILLE / NAHASTOTSU.**- Bazterrak nahasten ibiltzen dena. "Nahastatzaille drogoso bat izango da bere bizi guztian". "Lege-adittua zanetik, nahastotsua".



Euskararen Elkartea

**ARGITARATZAILA**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA**

Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

**FAXA** 943 20 28 72

**ASTEKARIAREN E-MAILAK**

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK**

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,

Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi

eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILA**

Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA**

Silbia Hernandez

**DISEINUA**

Maku Oruezabal

**MAKETAZIOA**

...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**

Malen Jainaga eta

Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA**

Juan Andres Argoitia eta

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA**

Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA**

943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA**

Ana Aizpurua

**BANAKETA-ARDURA**

Idoia Labado

**TIRADA**

7.868 ale

**INPRIMATEGIA**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA**

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

...eta kitto!-ren  
**itzulpen**  
fzu, tzu, tzu  
**zerbitzua**

**ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskaratik  
gaztelerara,  
gazteleratik  
euskarara,  
eta ingelesetik  
euskarara.**

- Urte askotako  
**ESPERIENTZIA** dugu.

- Bezeroaren  
beharretara  
**EGOKITUZ.**

elkartea@etakitto.eus

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



## Orain dela urtebete horrelakoak ginen

Sagardo Egunak 26. edizioa bizi izan zuen, egunean zehar ia 2.500 botilekin amaitzeko. Aginagako San Miguel jaiak giro bikainean ospatu ziren, tartean Puro Relajok eskaintako erromeriarekin. Bizikleta Eguna egin zuen Eibarko Txirrindulari Elkartek, ume zein helduentzat prestatutako egitarauarekin. Ibilgailu Klasikoen II. Kontzentrazioa egin zen gure herrian, San Kristobalgora jai batzordearen eskutik. Eibarko emakume korrikalarien taldea osatu zen Klub Deportiboaren ekimenez. Miren Urizar waterpolistak Olinpiar Komitearen domina jaso zuen. 1934ko urrian atxilotutako 238 eibartarren zerrenda ipini zuen eskuragarri Udal Artxiboak. Kaleetan Kantuz-eko taldeki-deak astebeteko irteera egin zuten Portugalera.

1- Sagardo Egunak Untzaga plaza betetzea lortu zuen beste behin. 2- Aginagan San Miguel jaiak bi asteburu hartu zituzten. 3- Herriko emakume korrikalarietako taldea osatu zuten. 4- Ibilgailu Klasikoen kontzentrazioa egin zen Untzagan bigarren bezelako. 5- Kaleetan Kantuz-ekoak Portugalera joan ziren astebete pasatzera. 6- Bizikleta Egunak goiz osoko jarduna eskaini zien zaletuei.



## Arantzauraino joan ziren osasuna eta eskubideak aldarrikatzera

>>> Zapatuan 150 bat automobil eta 250 lagun baino gehiago elkartu ziren, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako hiriburuetatik abiatutako autoen karabanarekin "osasuna eta eskubideak" aldarrikatzeko. Lau zutabeak hiriburuak zeharkatu ondoren herriz herri ibili ziren, Bergaran bat egin arte. Handik Oñati zeharkatu eta Arantzauraino joan ziren azken kontzentrazioa. Antolatzaileen berbetan, "elkartzeko arrazoi asko egon dira. Beldurrarekin osasunik ezin dela egon esateko elkarrekin gara. Europako herrialde

gehienetan bestelako protokolo eta erabakiak hartzen ari direla azpimarratzeko. Europako herrialde gehienetan herritarren eskubideak bortxatzen ez dituzten osasun politika darrazmatzela zabaltzeko. Zorionez, hedabideen zentsura gogorrek ez du saihestu euskal herritarrok bestelako informazioak izatea eta munduko mailako medikuek, adituek eta bestelako zientzialariek egindako ikerketen berri jasotzen ari gara". Horrek zalantza ugari sortzen dizkie eta eztabaida irekia egitea nahi dute, argitzeko.

## Kontsumo-ohitura arduratsuak hedatzeko lehiaketa eta azoka

>>> Gaur da azken eguna Egoaizia Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatu duen III. Argazki Lehiaketara lanak aurkezteko. Argazkietarako gaia "Kontsumo arduratsua pandemia garaian" da eta teknika guztiak onartuko dituzte. Lanak koloretan zein zuri-bel-tzean aurkeztu daitezke, JPG/JPGE formatuan eta 300 ppp bereizmenarekin (gutxiene-ko neurria 20 zentimetrokoa izan beharko da).

Argazkiak egoaizia@egoaizia.org helbidera bidali behar dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, Egoaiziaren sare sozialetan (Facebook, Twitter,

Instagram) begiratu daiteke. Hiru onentzat sariak egongo dira. Sari banaketa, berriz, urriaren 17an izango da, egun horretan, goizeko 10:00etatik 14:30era, Untzagan egingo den Kontsumo Arduratsuen V. Azokan.

Egun horretarako prestatu duten egitarauan, tokiko elikagai eta produktuen salmenta, finantza etikoak, energia berriztagarriak, bizikleten konponketa, produktu jasagarriak eta birziklatuak, mugikorren birziklapena, umeentzako ipuin kontalaria, musika, erakusketak eta otar zozketa daude, besteak beste.



### DEBABARRENAKO ASTE EKOLOGIKOA

#### EIBAR - DEBA

Azoka Ekologikoa  
Urriak 3 / Eibar

Gutzi Ekologikoen Ibilbidea  
Urriak 3 / Eibar  
Urriak 9 / Deba

Traka Matraka  
Birziklatuz musika sortu  
Urriak 9 / Deba

### Urriaren 3an Eibarren

#### AZOKA EKOLOGIKOA

Txaltxa-Zelai plazan (Untzaga gainean)  
10:00 / 14:00

#### GUTZI EKOLOGIKOEN IBILBIDEA

BIBA ARDOAK eta eskualdeko pintxo ekologikoak herriko tabernetan

ALBERT / ANKURPE / BAIKI / SARATZE GOURMET / BIRUNAPE BERRIA / CHEC / KILI KILI / KONTENT / KOSKOR / MALTU / LAUREL / O'ARYS / PALANER / SLOW / TRAKETE / TRAKO

---

### Urriaren 9an Deban

#### GUTZI EKOLOGIKOEN IBILBIDEA

BIBA ARDOAK eta eskualdeko pintxo ekologikoak herriko tabernetan

ATOTZE / BORDATKO / GENBE / LABATU / MAZZANTINI / ZALBURDI

#### TRAKA MATRAKA

Kultur Elkarteko plazan (aloro mugatua)  
18:00



## Zaporeak proiektuari laguntzeko Bizum maratoia

>>> Zaporeak elkarteak Bizum maratoia egingo du bihar, eguerdiko 12:00etatik gaueko 00:00etara, Lesboseko errefuxiatuei lagundu ahal izateko dirua biltzeko. Telefono mugikorren bitartez ordaintzeko plataforma da Bizuma eta, ekarpena egiteko, dohaintza aukeretan klikatu eta Zaporeak proiektua (00435 kodea) aukeratu behar da. Zaporeak elkarteak adierazi duenez, banku guztiek ez dute garatuta euren Bizum plataformetan Gobernu Kanpoko Erakundeei dohaintza egiteko aukera. Beraz, kasu horretan, transferentzia egin daiteke: ES32 2095 5011 80 9115250322 (Kutxabank) eta ES71 3035 0103 88 1030035880 (Laboral Kutxa). Herriko hainbat tabernetan itsulapikoak jarri dituzte domekara arte Zaporeak proiektuari laguntzeko dirua jasotzeko.

## Hondakinen gaikako bilketak gora egin du eskualdean, iazko udako datuekin alderatuz gero

>>> Debarreneko Mankomunitateak 2020ko udan 2019an baino hondakin gehiago jaso ditu gaika, kaleratu dituzten azken datuen arabera: urtarriletik abuztura bitartean gaika sailkatutako bilketa %55,11ra ailegatu da eta, aurreko urtearekin alderatuz gero, %1,07ko igoera egon da. Adierazi dutenez, "orokorrean, 2020ko udan hondakin gehiago jaso dira gaika, eta hobekuntza leunak somatu dira frakzio gehienetan, batez ere organikoaren gaikako bilketan eta baita papera eta kartoiarenean ere. Aurten, uztailean eta abuztuan, 734 tona organiko jaso dira guztira eta 2019an, berriz, 644 tona izan ziren. Papera eta kartoiari dagokionez, 611 tona jaso dira aurten (iaz 500 tona bildu zituzten)".



ere, oraindik lan asko dago egiteko eskualde mailan eta ezinbestekoa da gizarteko eragile guztien inplikazioa".

Udazkenean hainbat proiektu abiarazi ditu Debarreneko Mankomunitateak gaikako bilketa sustatzeko, hala nola, frutadenda, jatetxe eta pintxodun tabernetan hondakin organikoak gaika jasotzeko kanpaina edo Deba, Mutriku eta Elgoibarko tabernetan gaika biltzen den beira kopurua handitzeko kanpaina.

## Kalitatezko osasun publikoa aldarrikatzeko protestak

>>> Orain bi aste Lehen Arretako zentroetan egin zuten bezala, Osakidetzako ospitaleetako langileek kontzentrazioak egin zituzten aurreko barixakuan kalitatezko osasun publikoaren eta langileen eskubideen alde. LAB, SATSE, ELA, SME, CCOO, UGT eta ESK sindikatuak deitutako mobilizazioek jarraipen zabala izan dute eta, besteak beste, Eibar Ospitalean eta Mendaroko Ospitalean elkarretaratuta dira beharginak, eguneroko lanean baliabideak eta materiala falta zaiela eta pandemian jasandako muturrerako lan baldintzak salatzen. Aipatutakoei beste arrazoi



batzuk gehitu behar zaizkio: osasun publikoan inbertsio eza, behin-behinekotasun tasa handiak... Hori dela eta, manifestazioa egingo da bihar Bilbon, 12:00etan, Jesusen Bihotzetik abiatuta.

## Energia Argitu tailerretan parte hartzeko izen-ematea zabalik

>>> Energia Argitu programaren baitan hainbat tailer egingo dituzte urrian. Lehena atzo egin zen eta hurrengoak hauek izango dira: "Etxean energia aurrez dezakezu erosotasunik galdu gabe" (urriak 8), "Eraginkortasun altuko birgaitzea: zure etxerako baliagarria, dirua aurrezteko eta osasuna irabazteko" (urriak 15), "Energia berri-

tagarriak zure etxean... posible da!" (urriak 22) eta "Ibilgailu elektrikoak eta mugikortasun jasangarrirako aukerak" (urriak 29). Tailer guztiak Portaleko B batzartokian egingo dira, 18:30ean hasita. Izena emateko 943 11 29 48 telefono zenbakira deitu edo argitu@gipuzkoa.eus helbidera idatzi. Informazio gehiago www.argitu.eus-en.



## BPTD enpresa elkarteak eta Enpresarek lankidetzaren hitzarmena sinatu dute

>>> Hainbat hilabetez bilerak egiten jardun eta gero, BPTD Enpresa Elkarteak eta Enpresarek Debagoienerako enpresataldeak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute, "Debarrena eta Debagoiena eskualdeei balioa emango dioten ekimen bateratuak bultzatzeko". Hitzarmen horrekin bi taldeetako enpresek osatzen duten industria-sarearen lehiakortasuna hobetzea eta lan egiten duten eremu geografikoaren garapena indartzea lortu nahi dute. Eduardo Zubiaurre BPTD Enpresa Elkarte-ko lehendakariak esan duenez, "gure barrutiko garapen ekonomiko eta soziala bultzatzen

dugu industria-jardueran lurralde-ongizatearen iturri gisa berrietzeko. Horregatik, Enpresarekin sinatutako hitzarmena aliantza estrategiko bat da".

Lankidetzaren publiko pribatuaren bidez eta Debarreneko udalen laguntzarekin, BPTD Enpresa Elkarteak jardueraren ekonomia, talentua eta berrikuntza sortzea bultzatzen duten proiektuak garatzen dihardu. 2020an, industria-jardueraren eta enpleguaren indartze-ko eta hazteko proiektuak jarri zituzten martxan eta 2021eko Kudeaketa Planak ildo horiek lantzen jarraituko duela eman dute aditzera.

## Kalamuara igo eta tontorrean argazkia aterako dute bihar

>>> Euskal Herriko 650 tontorren igoera antolatu dute biharko Izan Bidea ibiltarien sarea presoen eskubideen aldeko dinamikaren baitan. Eibartik Kalamuara egingo da irteera nagusia. Urkizutik irteerako dira, 10:00etan, baina nahi izanez gero Usartzan taldean sartzeko aukera ere bada, 11:15ak inguruan. Eta Kalamuako tontorrera ailegatzeko, 12:30ean argazkia egingo dute. Bestalde, kilometroak pilatzen joateko, mobilerako aplikazioa



jaitsi behar dela gogorarazi nahi dute, "eta izena ematea ere garrantzitsua da (650 tontor.sare.eus)".



## Milioi erdi euro eskuratu ditu eibartar batek ONCEren jokoan

>>> Untzagako salmenta postuko saltzailearen eskutik ailegatu zitzaion zortea eibartar bati aurreko astean, "X20 Multiplica el dinero" Rasca bat bertan erosi eta 500.000 euroko saria irabazi baitu. Isabel Arana saltzaileak azaldutakoaren arabera, "saria ohiko bezero batek jaso du. Gaur (barixa-

kuan) goizean bertan etorri da nire salmenta gunera Rasca saria zuen konfirmatzeraz eta poz-positiboa da saria jasotzeraz". Aranak 12 urte daramatza salmenta lanetan ONCEn eta aurten 35.000 euroko sari bat banatu du Eibarren ere. Saritutakoa berehalako joko-produktua da eta 5 euro balio du.

## Zaldibar Argituk mobilizazioa deitu du biharko

>>> Zaldibarko zabortegiko ezbeharrak izan zela 8 hilabete betetzear daudela eta, biharko mobilizazioa deitu du Zaldibar Argitu plataformak, 18:00etan Untzagan. Bestalde, hurrengo bilera irekia urriaren 14an izango dela gogorarazi nahi dute, 19:00etan Kulturalean.



## Kirol saio berriak probatzeko doaneko saioak

>>> Fixme eta Helmet-ek ate irekien jardunaldiak egingo dituzte urriaren 5etik 16ra, korrikalarien kluba edo entrenamendu funtzionala probatzeko (Lore Yogan, Errebalen). Informazio gehiagorako deitu 943849310 telefonora edo helo@helmethouse.es-era idatzi.





## “Ahanzturarik ez” adierazpena Alkate Txikixaren omenez

Aurreko asteko eguenean Coliseoan egin zuten ezohiko Udalbatzan omendu zuen Eibarko Udalak Alejandro Telleria Estala “Alkate Txikixa”. Alderdi politiko guztietako ordezkariak gogoratu nahi izan zuten “tamainaz txikia izan arren, handia” izan zen gizona. Ofizios grabatzailea izan arren, “gogoz kontra” birritan Eibarko alkate izan zen: 1920ko apirilaren 1eko udal hauteskundeetan hautatu zuten alkate lehen aldiz eta 1921eko azaroaren 11n kargugabetu, sozialista gazteek ateratako orri solte batek Ejerzitoa iraintzen zuela eta, bere sinadura zuelako. 1931ko apirilaren 12ko hauteskundeak ere irabazi zituen eta handik bi egunera, II. Errepublikak aldarrikatu zenean, bera zegoen alkate karguan. Alkate modura egindakoak eta bere bizitza gogoratzeko ekitaldia izan zen. Hain zuzen ere, bizirik egonez gero, horrelako egunez 144 urte beteko zituen eta Udalbatzak aho batez onartu zuen bere omenezko adierazpena. Ondoren, dokumental batean bere biografia ekarri zuten gogora. Soinujoleak eta Fran Lasuenek lagunduta, bertara joandakoek “Gerrako gure ibillerak” abestu zuten eta, ekitaldia amaitu aurretik, Adela Telleria (96 urte) ilobak eta iloba baten alaba den Carmen Amutxastegik (88 urte) lora-sorta eta adierazpenaren kopia bana jaso zituzten.



## Errebalgo lanetarako onartu diren aldaketak azaltzea exijitu dute

Errebalgo Plataformak, Eibarko Udaleko oposizioa osatzen duten EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos alderdietako bozeramaileekin batera, prentsaurrekoa eman zuen aurreko barixakuan Arrate Kultur Elkartearen, Errebalgo lanen proiektuan uztailaren onartu ziren aldaketak direla-eta, PSE-EEren udal gobernuari azalpen publikoa ematea exijitzeko eta, gai horren harira, elkarrekin adostutako adierazpenaren berri emateko. Esandakoari jarraituz, “700.000 euroko gainkostua eragingo duten aldaketak onartu zirenetik bi hilabete igaro dira eta udal gobernuak ez du horren inguruko inolako azalpenik eman oraindik”.

**P**roiektuan egin diren aldaketak, horien kostua, lanen kalitatean izango duten eragina eta lanak egiten ari den Errebal Iza-Campezo enpresak proiektua aldatzeko asmoa zuela noiztik zekiten azaltzea eskatzen dute, besteak beste. Horrekin batera, lanak amaitu baino lehen proiektuak izango duen azken gainkostua hori izango den argitzea nahi dute, “gainkostu gehiago izango direla susmoa dugu-eta”.

Gogora ekarri nahi izan zuten enpresa horri lanak esle-

tzeko arrazoia aurkeztu zuen eskaintza izan zela, prezioan %16,10eko beherapena egin zuen-eta, baina “orain arteko gainkostuak %13,02ko igoe-rra eragin dute; beraz, enpresa lehiaketaren hasierako prezio-rik oso gertu dago honezker”.

Aldi berean, lehiaketan puntu gehien lortzeko beste arrazoia lanak amaitzeko epe laburra izan zela azaldu zuten: “Hala ere, PSE-EEK lanak amaitzeko epea 9 hilabetez luzatu du”.

Euren kezka eta zalantza guz- tiei, eibartar batek Udalean aur-

keztutako eskaera gehitu behar zaio: “Aurkeztu duen eskaeran galdera oso zehatzak eta kez- kagarriak daude eta irregular- tasunak egoteko aukera aipa- tzen du”. Hori ikusita, Sektore Publikoko Kontratuen Legea eta 15/2010 Berankortasun Le- gea betetzen ari diren argitzeko txosten teknikoak egitea eskatu dute. Horren harira, gai hori mahaigaineratu zenean udal gobernuak ez zuela ia azalpe- nik eman salatu dute. Herritar horrek egiten dituen galderei lehenbailehen erantzun behar

zaiela uste dute: “Itxura denez, hilabeteetako atzerapena du- ten fakturak ordaintzen ari dira eta legeak ez du horrelakorik baimentzen. Udal teknikariek horrelako kontuen inguruan sakon ikertzea espero dugu”.

Amaitu aurretik, uztailaren 29an eta abuztuaren 12an egin zuten bezala, Errebalgo Platafor- mak berriz eskatu nahi dio Uda- lari auzokideekin bilera egiteko, alkatea eta alderdi politiko guz- tiak bertan direla, aipatutako kontuak eta egon daitezkeen beste galderak erantzuteko. ■

### ERNESTO LIZARRALDE AIZPURUA

1. urteurrena: 2019-X-6

“Beti gure bihotzean”

ETXEKOAK



## Lantegiko nagusien eta langileen arteko harremana

Ugazaba eta langileen arteko harremana Eibarren. Aita Beistegirenean akabatzailea zen. Anekdotak barregarri bat kontatzen du honen inguruan.



Orbea lantegiko 430 behargin 1913. urtean.  
EIBARKO UDAL ARTXIBOA. CASTRILLO ORTUOSTE FONDOA



**Jose Echeverria Ayerbe**  
(1912 – 2001)

Eibarren jaio zen 1912. urtean. Aita, Beistegirenean akabatzailea zen. Josek Eskola munizipaletan egin zituen lehenengo ikasketak eta ondoren Armeria Eskola amaitu zuen. 17 urterekin “Izar”-era joan zen lan egitera, Zornotzara. Handik urte batzuetara Alfa hasi zen lanean eta 50 urte egin zituen bertan. Errepublikara garaia eta 1934ko urriko iraultza bete-betean ezagutu zituen. Gerra sasoian, Amuategi Batailoian egon zen. Indalecio Prietok Armeria Eskolako gazteak eskatu zituen eta, beste eibartar askorekin batera, “Los Alcazares”-era (abiazio akademiara) joan zen hiru hilabeteko ikastaro bat egitera.

# E

**IBARTARREN**

### Jose Echeverriari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“Baiña Eibarren gauza bat eguan zera: Beste herrixetan —por ejemplo, Durangon eta— dirudunak —esango dogu— ez eban alternatzen bihargiñekin. Eibarren ez eguan hori, e! Eibarren gauza bat notabilia genduan. Nere aitta zan Beistegiñian akabatzailla, bihargiña zan. Beistegi anaiak ziran ugezabak, baiña lagunak ziran [...] Kuadrilla baten juntatzen ziran ugezabak eta bihargiñak: txikiteuan, bazkarixetan, kazara... Kazara be alkarrekin, peskara be alkarrekin... Nahiz eta taillarrian Cosme eta Juanito ugezabak izan, kalia ez ziran ugezabak [...] Txiste bat kontauko detsut. Ipuña, ipuña behintzat. Eibarren zan famoso bat: Punteret. Dotoria. Akabatzaillia zan. Baiña iñok ez eban pentsatzen —ha hain zan kuriosua eta garbixa— akabatzaillia zanik. Klaro! Ugezaba eta bera lagunak ziran. Eta egun baten Punteret Untzagan tabernan eguan, mostradorian, eta sartu zan Cosme Beistegi, ugezaba. Punteret gastua egitten eguan: “Ze hartuko dok?”, “Booo!”. Ugezaba jua zan pagatzera eta esan etsan eze: “Ez, e? Ez. Hamen ez dok pagauko. Hamen neuk pagauko juat. Hik pagau egik ondo taillarrian! Taillarrian pagau egik bihar dan moduan, baiña hamen ez, e? Hau neuk pagauko juat” [Inbitazioa] Bai.”



1960. urteko irudi honetan Alfako beharginak ikusten dira, lantegitik irtetzen.

## Lan giroa Eibarren: sirenak eta langileak urdinez jantzita...

Lan-orduak; sirena. Langile guztiak batera irtetzen ziren...



**Alejandro Lizarriturri Barrutia**  
(1914 – 2009)

Aita Astelena frontoiko txartel-saltzailea zen eta, ondorioz, Alejandrok ume-umetatik ezagutu zituen bertan egiten ziren oilar-borrokak, dantzaldiak eta bestelakoak. Gerra Zibilean parte zuzena hartu zuen: txofer bezala lehenik, gerrako parteak batera eta bestera eramaten geroago. “Batallon de Trabajadores” en egondakoa. Urteak pasa eta orduko gazi-gozaok zertxobait arindu zirenean, garai gogor hartan bizitakoak liburuxka batean idaztea erabaki zuen.

# A

**HOTAN**

### Alejandro Lizarriturri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“[Sekulakua zan orduan Alfa, ezta? Sireniak jo eta danak batera urtetzen...] Baaaai... Boladia! [Ze ordutan izaten zan hori?] Ba, orduan, kanbixauko eben, bestiak hamabixetan eta gurian hamabixak eta larenetan [Ez alkartzeko?] Bai, bestela... txoke! Zera, Calbetaira juaten zuan jo-ta bete-betian, Serapiana zeguan hor, ezta? Baiña kostunbria dake eibartarrak zerian juateko, harretxeri ikasitta seguramente. Zergaittik eze donostiarrak esaten zeskuen: “Eibarreses!”. “Pues?”. “Porque vais por el camino!”. Bai, egixa da hori, e! Neu be Donostira jua ta... sosiguzago ta, zera ta... gu ohittuta holan... ta kamiñora urten! Ta autoak ta ri-ra ta... “Mira, eibarreses son esos!” [barreak].

&lt;&lt;&lt; KOLDO ZUAZO • Hizkuntzalaria &gt;&gt;&gt;

## “Asko estimatu dut neure herriak eman didan babesa”

Hizkuntzalari, irakasle eta euskaltzain urgazle eibartarrak omenaldia jaso zuen Gasteizen eta, gainera, artikulua-liburua argitaratu diote: ‘Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena’. Jubilatuta bada ere, euskararen inguruan lanean jarraituko du modu batean edo bestean.

### Nolakoa izan zen Gasteizeko omenaldia?

Oso ederra. Aspalduzuean neure inguruan eduki ditudan lan-kideak, ikasle izandakoak, senideak eta lagunak agertu ziren eta horrek, jakina, poztu egin ninduen. Sekula ahaztuko ez dudana eguna izan zen.

### ‘Eibartik Zuberoara euskalkietatik barrena’ egin dute zure omenez. Zertan datza?

Liburu mardula da. 45 lagunen artean 35 artikulua osatu dituzte. Gehienak euskararen gainekoak dira, baina beste hizkuntza batzuen lekukotasuna ere agertzen da. Bestalde, niretako oso pozgarria izan da Eibarko Udalak ordaindu izana liburua. Eibartarra izanda, asko estimatu dut neure herriak eman didan babesa. Ohore handia izan da.

Eibartik Zuberoara ez dago kilometro asko, baina bai euskalkiak. Hain ezagun duzun gaia izanda, bide horretan ez zinateke galduko. Baina nola

### hasi zenuen bide hori? Zerk bultzatu zintuen euskalkien inguruan ikertzeraz?

Beharrak derrigortuta hasi nintzen. “Euskal dialektologia” erakusteko lagun bat behar zen Euskal Herriko Unibertsitatean eta neuk eskuratu nuen lanpostua eta, jakina, inori ezer erakutsi ahal izateko, lehenengo nik neuk ikasi beharra izan nuen. Horrela sartu nintzen mundu honetan.

### Norbait izan zenuen gidari lehen urteetan? Edo erreferenterik izan zenuen?

1988an hasi nintzen lanean. Artean EHU/UPVn ez zen euskal dialektologia erakusten. Deustuko Unibertsitatean bai eta, han irakasle zenak, Rosa Miren Pagolak, bazeuzkan gauza batzuk argitaratuta. Uda-ko Euskal Unibertsitateak ere eginda zeukan liburu bat eta, gutxi gorabehera, horixe zen garai hartan zegoena. Jakina, Louis-Lucien Bonapartek XIX. mendean egindako lan erraldoia ere erabili nuen.



### Eta gero, hainbeste urtetan bidea egiteko, nor izan duzu bidaide?

Egia esateko, ikasleekin ikasi dut gehien. Hego Euskal Herri osoko ikasleekin lana egiteko zortea izan dut unibertsitatean. Tartean Iparraldeko nor-

bait ere agertzen zen, eta haiei esker ikasi dut asko. Bestalde, “maisu” bat ere eduki dut: Jose Ignacio Hualde. Ameriketara bizi eta lan egiten duen arren, aspaldi luzetik izan dugu hartu-emana eta asko jaso dut haren gendik.

## ISI RODRIGUEZ NIETOren

4. urteurrena (2016-IX-30)

“Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko zuk izandako ilusioa eta bizipoza”



### Euskalkien mapa da zure lan ezagunetako bat. Mapa estatikoa da ala aldatzen doa?

Hasteko, mapa ez dut oraindik amaitu. Joan den aspaldian Ipar Euskal Herrian nabil beharrean eta oraindik Zuberoara joan barik nago. Nafarroako alderdi batzuk ere ez ditut behar den moduan ezagutzen eta horretan jardun nahiko nuke ondorengo urteetan. Helburua XXI. mende hasierako euskara erakustea da. Zure galderari erantzuteko, mapak garai jakin bateko argazkiak dira. Bonapartek XIX. mende erdian egiten zen euskara erakutsi zuen eta nik une honetan egiten dena erakutsi nahi nuke.

### Euskal munduan hainbatetan eztabaidatu izan da euskalkien eta euskara batuaren inguruan, bata bestearen aurka dauden bi bando izango balira bezala. Euskalkiak eta euskara batua kontrajarriak dira? Nola bultzatu daiteke bien arteko elkarbizitza?

Munduko hizkuntza “normal” denetan daude estandarra eta dialektoak eta ez dira inondik inora bata bestearen aurkari; hizkuntzaren “zatiak” dira. Estandarrak eginkizun batzuk ditu eta dialektoek beste ba-



### “Hego Euskal Herri osoko ikasleekin lana egiteko suertea izan dut unibertsitatean”

tzuk. Estandarra komunitate osoari begira erabiltzeko da, gehienbat zeregin “jasoetan” eta idatzizkoetan; dialektoak, berriz, esparru txikiagoetan eta, batez ere, ahozko jardunetan. Gurea ere herri “normala” izan- go balitz ez litzateke arazorik

### “Hizkuntza estandarrek eginkizun batzuk ditu eta dialektoek beste batzuk”

egongo, baina egin kontu, esate baterako, 1960ra arte ez zela euskara erabili eskoletan. Zelan izango gara herri “normala” gure hizkuntza irakaskuntzan baztertuta eta debekatuta egon baldin bada eta, gaur egun bertan ere, baztertuta baldin bada-

go Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian?

### Eibarren, adibidez, nagusiek eta gazteek ez dute euskara bera egiten. Galdu egingo da nagusiek egiten duten euskalkiaren forma hori? Horrela bada, normala edo saihestezina da belaunaldiz belaunaldi berba egiteko modua moldatzea edo aldatzea?

Herri guztietan gertatzen da zaharrek eta gazteek desberdin berba egitea, baina gurean alde handiegia da. Lehen esan dizut horren arrazoia: ez gara herri “normala”. Gauzak behar bezala egin izan balira, gure herriko berbetak bere lekua edukiko zuen zenbait esparrutan eta ez zen hainbestean galduko. Bestalde, euskara batua modu zentzuzkoagoan erabili izan balitz, Eibarko berbak eta egitura sintaktikoak sartuko genituzkeen. Pentsa ezazu gaur egun zenbait lagunek Eibarren erabiltzen duten euskara batua eta Tuteran edo Barakaldon erabiltzen dena berdin-berdina dela eta hori ez da inondik inora zentzuzkoa. Argentinako gaztelania batua eta Espainiako, esate baterako, ez dira guztiz berberak. Zergatik bai gurean?



# 2021eko gida prestatzen dihardugu

## #Eibarren badakagu

publizitatea@etakitto.eus  
etakitto.eus/mediateka/gida-komertziala



Ahmed Check Brahim Tindufen (Aljeria) jaio zen 1988an, sahararren errefuxiatu esparruetan, Maroko eta Fronte Polisarioaren arteko gerra erdian. Marokok Sahara okupatu ondoren hasi zen gatazka armatua eta saharar askok bere jaioterria utzi behar izan zuten eta Tindufen behin-behineko esparruak eraikitzen hasi ziren. Behin behineko kanpamenduak, ordea, iraunkorrak bihurtu dira poliki-poliki, herri bilakatu. Han bizi da oraindik Ahmeden familia gehiena.

#### Anaitasuna eta komunitatea

Ahmedek errefuxiatu zelai batean egin zituen bere bizitzako lehen zortzi urteak, "baina ez nuke ezer aldatuko", dio seguru. Bere aitak, kanpamenduetako gizon askok bezala, gatazka armatuan parte hartu zuen eta joan-etorrian ibili zen. "Beraz, kanpamenduak emakumeek sortu zituzten eta igartzen da, oso ondo eginda daudelako", bere iritziz. "Emakumeek indar handia dute Saharako gizartearen". Beharrik zituzten, noski, "egunean behin bakarrik jaten gauen", baina ume baten ikuspegitik alaitasunez bizi da ia momentu oro. "Demaseko anaitasun eta komunitate sentimendua zegoen, haimak edozeinentzat zabalik zeuden eta den-denak anai-arrebak ziren niretzat", oroitzen du.

#### Haimetatik etxebizitzetara

Ahmedek 1996ko uda Valentziako familia batekin pasatzeko aukera izan zuen oraindik martxan jarraitzen duen 'Oporrak Bakean' programarekin. Elkar maitemindu ziren eta, Ahmeden gurasoekin adostasun batera iritsi ondoren, valentziarrek etxean hartu zuten. "Urtebetera Tinduferra itzuli ahal izango nintzela uste nuen, baina lau urte egon nintzen gurasoak ikusi barik", gogoratzen du. Bere bizitza osoan haimak, lurra eta harea besterik ez zituen ikusi, lehen telebista bera joan zenean sartu zelako kanpamenduetan. "Valentziara heldu nintzenean denak ha-

## Sahara beti bihotzean

EKHI BELAR



Ahmed ingeniaria da eta Teknikerren egiten du lan. EKHI BELAR

rritzen ninduen. Orduak egon nintekeen komuneko kateari tiraka. Nahi nuenean ura irretzen zen!", dio barrez. Azkar ikasi zuen gazteleraz egiten eta Valentziako familiak demaseko

maitasuna eman zion. Bi familia ditu geroztik.

#### Bi tokitakoa

Ahmedek bihotzean darاما bere jatorria, baina ezin du uka-

tu Valentzian egin dela gizon. "Bi tokietakoa naiz", dio harro, alde batetik eta bestetik jasotakoarekin osatu duelako bere izaera eta pertsona. Hasieran zaila egiten zitzaion Saharako familiarekin berba egitea ("Tinduferra joan behar ziren telefonoz berba egin ahal izateko") eta hassanieraz egiteko erraztasuna galdu zuela dio, baina nahiz eta kilometro askotara egon, beti sentitu da bere jatorritik gertu. Oraindik ere hainbat ohiturari eusten dio: "Adibidez, lagun sahararrekin elkartzeko naizenean tea hartzen dugu. Giro berezia sortzen da, gai ezberdinen inguruan hausnartzeko balio izaten digu eta erritual bat jarraitzen dugu, hiru baso edan behar direlako. Lehena mingotsa da, bizitza bezala; bigarrena gozoa, maitasuna bezala; eta azkena leuna, heriotza bezala".

#### Ingeniaria Eibarren

Ingeniaritza ikasketak egin zituen Valentziako UPVn, baina zerbait falta zitzaioela uste zuen. Beraz, Euskal Herriko tradizio industrialaren jakitun eta bere anai-arreba bi hemen bizi direnez, Bilbon masterra ikastea erabaki zuen. Teknikerren egin zuen master amaierako lana eta bi urte daramatza bertan lanean eta Eibarren bizitzen. Gustora izan da hemen, nahiz eta aitortzen duen kuadrillen hermetismoak zaildu egiten duela jende gehiago ezagutzeko, eta hila bete barru Bilbora joango da bizitzera. "Dena dela, egunero etorriko naiz Eibarrera lanera", dio.

#### Elkartasun sentimendua

Euskal Herrian elkartasun sentimendu estua dago herrialde sahararrekiko, "baita Espainiako gizartearen ere orokorrean, nahiz eta estatuak Sahara alboratu duen", Ahmeden ustez. Bere jaioterria utzi duten beste hainbat sahararrek bezala, bere herriari laguntzeko ekintzetan parte hartzen du Ahmedek. Bere iritziz David eta Goliaten arteko borroka bezala da, baina Saharako Errepublikaren alde egiten jarraituko dute.

## "Herriak ordezkatzeko gaitu eta hori azpimarratu nahi izaten dugu"

Herriko kaleetan gero eta ohikoagoa da jendea rap musika abesten ikustea. Kaleak berak garrantzia handia izan ohi du rapean eta horren erakusgarri da '20600' Renk C.A (Xune Breña) eta Emeka (Markel Martin) rap abeslari eibartarrek orain dela pare bat aste aurkeztu duten lana. Bakoitzak bere aldetik, baina elkarrekin aldi berean, bidea egiten dihardute rap munduan.

#### '20600' izeneko abestia sortu duzue. Zer dago zenbaki horren atzean?

RENK C.A: Eibartarrak gara eta, herriko posta-kodearen zenbakia izanik, abesti askotan aipatzen dugu 20600, baina ez da berez Eibarren omenez egindako abesti bat. EMEKA: Rapean eta kaleko musikan askotan aipatzen da posta-kodearen kontua. Eibar maparen gainean jartzeko balio du. Izan ere, orain arte ez da rap abeslari askorik izan herrian. Xunek eta Martin Rekaldek urte asko daramate, eta ni geroago hasi naiz, baina ez dago askoz gehiago.

R: Lehen lau katu ginen, baina rap kultura hedatzen joan da, kontzertuak egin ditugu herrian eta jendeari gehiago gustatzen zaio.

#### Zuen jatorria abestietan islatzen da?

E: Bai, ikusten dugunaren inguruan egiten dugulako berba.

R: 'Armagintza hiria' kontzeptua ere askotan aipatzen dut abestietan. Azken batean, herriak ordezkatzeko gaitu eta hori azpimarratu nahi izaten dut.

#### Zer berezitasun ematen dizue eibartarrak izateak?

R: Alde onak eta txarrak daude. Batetik, alde onei begira, Eibar herri txikia denez, musikari moduan edozein gauza eginez gero, jendeak entzun egingo dizu. Eta kontrara, hain txikia izanda, zaila egiten zaigu ezagutzera ematea. Bilbonedo Bartzelonan biziko bagina, jende gehiagorengana iritsiko ginatke.

#### Nola hasi zineten abesten?

R: Nik txikitatik entzun izan dut rap musika eta beti izan dut rap egiteko gogoia.

E: Ni 'oilarguak' egiten hasi nintzen lagunekin eta nahiko nuen, baina pare bat urte laga egin nuen. Baina orain dela urtebete hiru-lau lagun batu eta



#### # RENK C.A ETA EMEKA Rap abeslariak #

abestiak idazten hasi ginen, eta nire abestiak aurrera ateratu behar nituela esaten zidaten.

#### Zaila da rap bidea egitea herriaren?

R: Bilbo eta inguruko jende asko ezagutzen dugu, eta orain errazagoa egiten zaigu hemengo rap munduan mugitzea. E: Musika ona egitea eta jendeak ezagutzeko nahi baduzu, inbertsio bat egin behar duzu. Ni ikaslea naiz eta ez dut dirurik irabazten, beraz, zaila da ezer inbertitzea.

#### Nola iritsi zitzaizuen bideo-klipa egiteko aukera?

E: Hirurok tabernan kontzertua eskaini ondoren, elkarrekin abesti bat egiteko beharra ikusi ginen. Abestia sortu, grabatu eta sarera igo genuenean jendeari asko gustatu zitzaion,

eta zerbait gehiago egin behar genuela ikusi genuen.

#### Noizean behin elkarrekin ibili arren, zuetako bakoitzak berezko bidea egiten du...

R: Hori da. Bakoitzak bere kanala du, baina denbora asko pasatzen dugu elkarrekin eta beti gaude elkarlanean. E: Gainera, North School ize-deko kolektiboko kideak gara. Deba, Durango, Sorluze eta Eibarko rap abeslariak gaude bertan eta elkarri laguntzen diogu.

R: Bakarrik nabilenean North School berba nire abestietan erabili ohi nuen eta, horren harira, kolektibo bat egitea pentsatu nuen. Horrela, eurei azaldu, gustatu zitzaion eta taldea sortu genuen. Gure kanala dugu eta bertan aurkitu daitezke gure materiala.

“ ما يخلق كون الخير ”

Ma ijlag kun aljeir

Onea bakarrik pasako da

**ANGEL SEBASTIAN DASILVA CARDOSO**  
(2020-9-28)

**“Beti gure gogoan”**

**BACOLEKUKO ZURE LAGUNAK**






Eva Alberdi  
EVA ALBERDI

## JUUL: tantaka, tabuak ipuinetatik lantzen

Eibarko Udalak bullyingaren aurkako sentsibilizazio komunitarioko jarduerak jarriko du martxan ikasturte honetan, Gizarte-kintza saileko Haurrak, Familia eta Gaztedia arloaren eta Juan San Martin Liburutegiaren eskutik. Programa honek "Tantaka, tabuak ipuinetatik lantzen" du izena eta herriko ikastetxei zuzenduta dago.

**"Bullyingak sortzen duen arazoa ikusaraztea bilatzen du programa honek. Osasungarriak eta errespetuzkoak ez diren egoerak ikusarazi nahi ditu"**

erakusketa didaktiko bat, ipuina lantzeko metodologia eta jarduerak osatu dira, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetako ikasleei eskaintzeko. Horrez gain, gai bera jorratzen duten beste irakurketa batzuk ere jarriko dira eskura gida bibliografiko baten bitartez.

Erakusketaren elementuak eta ideia Gijongo Udalaren Kultura, Hezkuntza eta Herri Unibertsitateko Udala Fundazioak laga ditu. Ipuinaren testu eta eskulturekin osatuta dago; bisita gidatua egiteko moduan jarrita daude elementuak eta Natalie Hickey izango da saioen dinamizatzailea. Juan San Martin Liburutegian izango dugu urriaren 1etik 22ra.

Bullyingak sortzen duen arazoa ikusaraztea bilatzen du programa honek. Osasungarriak eta errespetuzkoak ez diren egoerak ikusarazi nahi ditu; izena jartzen die egoerei, haiekin bukatu ahal izateko.

Ipuin bat erabiltzen da bere kalitate literarioari esker baliagarria dena deserosoa den gai honi eusteko. Ipuinetatik abiatuta, erakusketa bat sortzen da eta, horren bidez, hainbat jarduerak egiten dira.

Oraingoan aukeratutako liburua "Juul" da, Gregie de Maeyerrek idatzia eta Koen Vanmechelenek ilustratua (eskulturak), eta jorratu beharreko arazoak irainak, isekak, umiliazioak...; bullyinga, azken batean.

Eta programaren berriazko helburuak dira ipuina ezagutaraztea eta irakurzale-tasuna lantzea ipuinean jorratutako alderdietatik (kasu honetan, irainak, isekak eta umiliazioak). Horretarako,

Pedro Alberdi  
PEDRO ALBERDI

## Joan zaigu kapitaina

Aste honetan hil da Iñaki Azpiri, gure kapitaina. Aspaldiko kontuak dira, baina arrastoa uzten dutenak.

Orain berrogeita hamar urte, 1970-71 denboraldiaren hasieran, hamahiru eta hamalau urteko mutil koskorak ginen, eta ez genuen buruan futbola beste kezkarik.

Haurrentzako Espainiako Txapelketa Nazionala lehiaketa berri samarra zen, eta esango nuke lehen aldian izan zela Txantxazelaiko selekzio batek bertan parte-hartzen zuena. Kontua da, azkar eta labur esanda, Espainiako zortzi onenen artean sailkatzea lortu genuela. Horretarako, aurrena, Deba arroako eskualde-ligaxka irabazi behar izan genuen, Errota Zar-eko zelai erdiaren zabaleran jokatu, eta hurrena, zenbait kanporaketa gainditu behar izan genituen; final laurdenetako, esaterako, Ipuruan, eta argi elektrikoarekin.

Azkenengo fasea Tenerifen jokatu zen, 1971ko maiatzean. Hara aurretik, *Galerias Preciados*ek jantzi oso bana (prakak, elastikoa eta jaka) oparitu zigun, hegazkinean-eta denok berdin jantzita ibil gintezen, goi-mailako futbolarien antzera.

Talde haren bizkarrezurra dagoeneko desagertua da gure artetik, baina ez gure gogo-bihotzetatik. Lehenengo, Benantxo Rekalde erdilaria joan zen; hurrengo, Alberto Albistegi entrenatzailea; eta berriki, Iñaki Azpiri kapitaina.

**"Iñakik berezkoa zuen kapitain izaera. Hasiera-hasieratik ohartua zen ume mokoz osatutako talde bat ginela eta ardura hartu beharra zegoela"**

Iñakik berezkoa zuen kapitain izaera. Hasiera-hasieratik ohartua zen ume mokoz osatutako talde bat ginela eta, aurrera egingo bagenuen, ardura hartu beharra zegoela, bestela jai geneukala. Arduradun petoa zen. Ez zuen kargua sekula bere mesedetan erabili; are gutxiago, inoren kaltetan.

Gorpuzkerak ere asko lagundu zion eginkizun hartan; batetik, oso altua zen, eta burua ateratzen zigun, gutxienez, gainerako guztiok; eta bestetik, oso rubioa, eta ematen zuen ez zuela inoiz plater bat apurtu.

Tenerifeko bigarren partiduan 2-1 galdu genuen At. Madrilen aurka, eta emaitza horrek finalerako atea itxi zigun. Gero, partiduen ostean, autobus berean itzuli ginen jokalariek guztiok. Madrildarrak, irabazi arren, isilik; gu, berriz, galdu arren, gure kapitainaren gidaritzapean, ezta irakurketa urratu beharrean kantari: "Aurrera beti, beti aurrera", "Geuria da, eta geuria da", eta abar.



COVID-19an positibo eman duten Gipuzkoako zaharren egoitzen sareko egoiliarak artatzen dituzte Eibarko Ospitalean kokatuta dagoen zentro soziosanitarioan. Bertan, Aita Menniko lantaldeak dihardu lanean. Argazkian, Jon Arteaga, Aintzane Egidazu, Eva Cobos, Irune Galarraga eta Alaitz Salgado. ANA AIZPURUA

## Eibarko Ospitalea, Gipuzkoako egoitzetako nagusientzako babesleku

Gipuzkoako nagusien egoitzetan antzematen diren COVID-19 kasuak artatzeko erreferentziako zerbitzua du Gipuzkoako Foru Aldundiak Eibarko Ospitalean. Ekainean martxan jarri zutenetik Gipuzkoa osoko 110 paziente pasatu dira bertatik. Zentro soziosanitarioak Aita Menniko lantaldeak kudeatzen dituen bi unitate bereizi eta 48 plaza ditu. Egun, horietako 31 plaza beteta daude.

Eibarko Ospitaleko 3. solairuko gune soziosanitarioa ekainean zabaldu zenean birusak beheranzko bidean jarraitzen zuen Gipuzkoan eta inork ez zuen ospitaleko arretarik behar. Hasierako asteetan Eibarko instalazioak egoiliar berriak isolatzeko erabili ziren, hau da, egoitzetan lehen aldiz sartzekoak zirenak 14 egunez isolatzeko. Gauzak, baina, egunez egun aldatzen ari dira, eta azken asteetan gau-

zak konplikatzen joan dira. Irailaren 29an argitaratutako datuen arabera, 46 COVID-19 kasu positibo daude Gipuzkoako egoitzetako erabiltzaileen artean. Horietako 31 Eibarko Ospitaleko gizarte-eta osasun-solairuan artatuak izaten ari dira.

### Egoitzetako nagusiak zaintzeko zerbitzua

Bertan lanean diharduen lantaldean bi erizain eibartar aurkitu ditugu: **Eva Cobos** eta

**Aitzane Egidazu**. Eva Cobos erizain ikuskatzailea da, eta berak azaldu digunez, "instalazio hauetan printzipioz asintomatikoak edo sintoma gutxi duten erresidentzietako nagusiak artatzen ditugu".

Azken batean, Gipuzkoako egoitzen sarearen barruan unitate erresidentzial bat gehiago da Eibarren jarri dutena. "Nagusi hauek euren egoitzetan egon zitezkeen, baina, egoitzak garbi mantentzeko, birusa duten pertsona horiek hona

ekartzea erabaki da", dio **Irune Galarraga** Aita Menniko erizain zuzendariak.

Egoitzatik Eibarko unitatera etortzen direnean nagusiek PCR frogak egin berriak izaten dituzte eta, beraz, gehienek ez dute sintomarik edo, izatekotan, oso arinak izaten dituzte. "Baina egun batzuk pasatzen direnean konplikazioak hasten dira. Tratamenduaren zati bat hemen egin dezakegu. Egoitza-unitate bat izanik, gure lan nagusia da konplikazioak garaiz



Ekainaren 1ean zabaldu zuten Eibarko zentro sozio-sanitarioa. Eibarko Ospitaleaz gain, Ordiziako egoitzak ere artatuko ditu urritik aurrera COVID-19a duten nagusiak.

eta ondo identifikatzen jakitea eta, beharrezkoa izanez gero, bakoitzaren erreferentziako ospitalera bidaltzea edo deribatzea", dio Eva Cobos eibartarrak. Kontuan hartu behar da Gipuzkoa osoko erabiltzaileentzako pentsatuta dagoela Eibarko zerbitzua.

Konplikazioak sarritan gertatzen diren galdetu diegu, eta kasuen %5 eta %10 artean korapilatu egiten direla baieztatu digute. Azken bi asteetan, lau gaixo hil dira bertan. Gaitza konplikatzeaz gain, oso bizitza-kalitate baxua zuten per-



tsonen kasua da: oso pertsona nagusiak eta pluripatologiekin. "Kasu zehatz hauetan familiekin adostu da trasladorik ez egitea eta zainketa paliatiboak bertan aplikatzea", dio Evak. Nagusiak bizitzaren amaieran daudenean senideen bisitak izan ditzakete. "Senideek asko eskertzen duten zerbeit da", dio Alaitz Salgado gizarte-langileak.

Aita Menniko profesionalak kudeatzen dute Eibarko zentro soziosanitarioa. Iru- ne Galarraga Aita Menniko erizainen zuzendariak ondo

ezagutzen ditu Gipuzkoako egoitzak. Izan ere, Aita Menniko profesionalak banakako eta aurrez aurreko aholkularitza tekniko eskaini diete Gipuzkoako 65 egoitzei. Berak azaldu digunez, "hiltorian egon diren gaixoen beti izan dute euren senideen konpainia, baita pandemiaren lehen olatuan ere". Hala ere, egia da, COVID-19aren ezaugarriak direla-eta, "batzuetan ez duela denborarik ematen bizitzaren amaieran daudela klinikoki detektatzeko. Gaixotasun honekin pare bat egune-

tan egoera goitik behera alda daiteke", diote.

**Lasaitasun-giroa eta espazio amankomunak**

Nagusiak ondo informatuta etortzen diren galdetu diegu eta, zentzu horretan, Aldundiaren, egoitzen eta Eibarko unitatearen arteko koordinazioa ondo egitea oso garrantzitsua dela dio Iru- ne Galarragak: "Bat-batean euren egoitzetatik irten eta leku ezezagun batera etortzen dira, langileak ere ez dituzte ezagutzen, harrera NBE edo norbera babesteko ekipamenduekin jantzita egiten zaie... Garrantzitsua da euren egoitzetan nora eta zertara datozen ondo azaltzea eta baita hemen egiten zaien harrera ere".

Era askotako pazienteak dituztela diote; batzuk kognitiboki oso ondo daude, baina beste batzuk, berriz, dementzia aurreratua dute. Horregatik, garrantzitsua, "lasaitasun-giroa sortzea da". Izan ere, Eibarko zentroan ez daude isolatuta. Guztiak COVID-19an positibo direnez, espazioak partekatzen dituzte, eta egunero jarduera desberdinak egiteko aukera dute gehienek. "Ez daude bakarrik eta hori oso

**"Gure lan nagusia konplikazioak garaiz eta ondo identifikatzen jakitea da"**

positiboa da. Euren egoitzetan geratuko balira, isolatuta egon beharko lirateke", dio Galarragak. Gehienak egoitzetako nagusiak izan arren, Atzegi-ko eta etxebizitza babestuetako erabiltzaileak ere pasatu dira bertatik.

Alaitz Salgado gizarte-langileak harreman zuzena du nagusien egoitzekin eta senideekin. "Egunero hitz egiten dut egoitzetako ordezkariekin, eta asko hitz egiten dut familiekin ere. Gaixoen eboluzioa azaltzen diet, eta informazioa asko estimatzen dute".

Sozializazioa eta euren senideekin harremanetan egotea funtsezkotzat jotzen dute. Arratsaldero senideekin harremanetan jartzen dituzte, telefono edo bideokonferen-

**"Ekainetik egoitzetako 110 egoiliar pasatu dira zentrotik, eta, batez beste, 15 egun egoten dira"**

tzien bidez. "Senide batek baino gehiagok egoitzara ez bidaltzea eta hemen gelditzea eskatu digu. Hori seinale ona da", gehitu du Alaitzek. Kognitiboki ondo daudenak egoitzetara bueltatzeko desiatzen daude, "gehienbat hemen ezin direlako kalera irten".

15 eguneko egonaldia egiten dute gehienek. "Batzuk zerbeit gehiago, negatibizatzea kostatzen ari zaielako", azaldu digu Evak.

**110 ospitaleratze ekainaren 1etik**

Errotazio handia dago, eta ekainetik 110 ospitaleratze izan dituzte. Dena berria eta oso aldatua dela diote. Egun batean 14 sarrera izan zituzten. Lantaldean medikuak, erizainak, gi-

zarte-langileak eta mantenimenduak eta garbiketaz arduratzen diren beste bi langile daude. Azken hilabetean erizaintzako laguntzaile asko gehitu behar izan dira lantaldean, "eta formakuntzako lan handia egin behar izan dugu", dio Iru- nek.

**Lana eta bizitza pertsonala**

Pandemia hasi zenetik lana eta bizitza pertsonalaren artean banaketarik ez dagoela sentitzen dute: "Ordu mordo sartzen ari gara. Telefonoa aldean daramagu beti. Hasieran (Eibarko zentroa oraindik zabaldu gabe zegoen eta Arrasateko Aita Mennin geunden lanean) kutsatzeko beldur handia genuen. Ez genuen maskararik eta ospitalean egin behar genituen. Oso konplikatua izan da. Orain ditugun babes-ekipoak, ordea, oso onak dira, eta kalean kutsatzeko beldur handiagoa dugu hemen baino", diote.

"Zeozer berria da, inork espero ez zuena. Baina horrek ez du esan nahi inprobisatzen ari garenik. Gauzak modu ordenatuan ari gara egiten. Oso eskertuta gaude gure lantaldearekin, lasaitasun handia ematen digu Eva, Aintzane, Alaitz eta Jon moduko profesionalak gurekin izatea", dio Iru- ne Galarragak.

**San Andres Gozotegia**  
tartak  
enkarguak  
etxera  
Bidebarrieta, 28  
943 20 79 73

**LORADENDA**  
LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO LORAK ZENTROAK ERRAMUAK  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29  
Enkarguak etxera

**zarelakogara**

Izen-abizenak \_\_\_\_\_ Helbidea \_\_\_\_\_  
Tfnoa / emaila \_\_\_\_\_ NAN \_\_\_\_\_  
Jaiotze data \_\_\_\_\_ K/K zenbakia \_\_\_\_\_

Bazkidetza edo ekarpenak egiteko

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuak	15 €	4,5 €	11,5 €
Langileak	45 €	13,5 €	31,5 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

**...eta kitto!**  
**Euskara Elkartea**  
Urkizu 11  
943 20 09 18 - 943 20 67 76  
elkartea@etakitto.eus

\* Urteko kopuruak dira

# Sagardo Eguna gogoan



Gaur egun bizi dugun pandemiagatik ez balitz, ale berezia izango litzateke esku artean duzun hau. 2020ko Sagardo Eguna iragarritz lau orri berezi izango litzateke aste honetako aldizkariak; izan ere, bihar, urriak 3, ospatuko litzateke 27. Sagardo Eguna ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Zoritzarrez, oso bestelako egoera bizi dugu, ez ohikoa, eta aurtengo Sagardo Eguna oroitzapenei begira ospatu beharko dugu.

**G**ainerako jaiekin gertatu den bezala, Sagardo Eguna ere bidean gelditu zaigu, 2020an egin ezin izan ditugun ekitaldien zakuan. Egoerak ez du beste aukerarik lagatzen. ...eta kitto! Euskara Elkartearentzat, beste askorentzat bezala, ez da urte erraza izaten ari. Urteko lehen hilabeteetara joanda, ararotetako ekitaldiak ezin izan zituen antolatu, orduko hartan Zaldibarko hondamendiaren ondorioz. COVID-19a etorri zen ondoren, eta horrekin batera hainbat jardueraren bertan behera uzteko erabakia. “Jardueretako batzuk moldatu egin ditugu, egingarri izan daitezkeen, baina beste asko ezin izan ditugu egin, Arrateko bertso-afaria, Kittonbola eta Sagardo Eguna, kasu. Eta, herritarrekin hartu-eman estuko ekitaldiez ari garenean, are mingarriagoa eginen zaigu bertan behera utzi behar izatea”, diote Elkartetik.

**Jaia baino gehiago**  
Sagardo Eguna jai bat baino askoz gehiago dela argi dute



26 urtetan egin da Sagardo Eguna Eibarren. 27na ere iritsiko da.

...eta kitto!-n: “Herritarrak eta elkarteak estu-estu konektatzen dituen ekitaldia da, hartu-eman itzela sortzen da, jendeak asko estimatzen du egun hori eta estimu hori igartzen... eta eskertzen dugu”. Baina ez hori bakarrik, egun berezia da beste arrazoi askorengatik: “Lanera eta laguntzera datozen boluntarioak eta langileak

dira Sagardo Egunaren bizkarrezurra, eurak barik ezinezkoa litzateke horrelakorik antolatzea: sukaldean, sagardoa zerbitzatzen, trasteak alde batetik bestera mugitzen, garbitzen... Hori guztia eginen dutenei esker irau du Sagardo Egunak bizirik 27 urte, gure jaiarekin bat eginen duten herritarrak ahaztu barik”.

## Euskeraren erabilerak gora

Hori diote azkeneko urteotan Sagardo Egunean egiten diren neurketek; euskeraren erabilera izugarri hazten da egun horretan, Untzagaren bertan eta inguruan. “Jai euskaltzalea da, euskalduna, eta euskeraz hitz egiteko lagungarriak diren faktore asko elkartzen ditu; ekitaldiak berak erraztu egiten du euskeraz hitz egitea, jendea errazago animatzen da. Esan beharrik ez dago, gu guztion desioa dela erabileraren hazkunde hori urteko 365 egunetan gertatzea”, Elkarteko esanetan.

Aurten ez dugu “brindisa” egingo udaletxeko balkoira begira, ez da selfie-lehiaketarik egongo, ezta sagar-tarta lehiaketarik ere, eta ondo mezezik “Euskaltzaletasunari Saria” ez du inork jasoko. Dolorea ez da etorriko Eibarrera eta ez dugu sagardorik dastatuko. Baina lantaldea ez dago geldi, eta, aurtengoz bada, hurrengoan indarberrituta eta sekula baino indartsuago iritsiko da Sagardo Eguna Untzagara. Eta elkarrekin esango dugu ozen: Txotx! ■



# Mintzapraktikako taldeetan izena emateko epea zabalik dago

Abian da ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Berbetan programaren ikasturte berria. Aurreko urteetatik osatuta zeuden taldeak hasi dira dagoeneko elkartzen, euren ohiko leku, egun eta orduetan. Orain, ...etakitto!-k aurtengo kanpaina berriari ekin dio, berbalagun berriak erakartzeko helburuarekin; baina, egoerak hala behartuta, aurtengoz beste era batera aurkeztu du kanpaina Elkarteak.

**U**rteko sasoi honetan izen-emate kanpaina buru-belarri beharko luke ...eta kitto!-k, eta horrela dihardu egunotan, baina beste era batera. Hainbat berbalagun-talde eta taldekide elkartu ditu eta euren esperientzia kontatu digute bideo batean. Lotura honetan duzue ikusgai <https://youtu.be/pDlxbo-dEmY4>

## Taldeak egunero, goizez eta arratsaldez

Mintzapraktikako taldeetan izena eman nahi duenak aukera zabala dauka horretarako; astelehenez hasita barixakurra arte, asteko egun guztietan elkartzen dira taldeak, arratsaldez asko, baina goizez ere gero eta gehiago. “Tantaka ari dira berbalagun berriak izena ematen, eta lehendik egin dauden taldeetan sartzeko aukera ematen diegu, baina taldeak larregi handitzen doazela ikusiz gero, talde berriak

sortzen ditugu; aukeran hobe izaten baita taldeak txikiak izatea”, diote programaren arduradunek. Beldurrak eta lotsa alde batera lagata euskeraz berba egitea da kontua, zuzentasunetik harago, ez baita eskola bat, eta ez dago irakasle-ikasle figurarik.

## Nola eta norentzat

Berbetan programak euskera praktikatzeko taldeak eskaintzen ditu; talde horietan ahozko euskera hobetu nahi dutenak euskeraz ondo hitz egiten dutenekin elkartzen dira, asantean behin ordubete, giro lasai eta informalean.

Nori zuzenduta dago programa? Euskera ikasleei, euskaltegian dabilzanak edo ibilitakoak, ikasitakoak praktikan jar dezaten; euskeraz hitz egiteko ohitura galdu eta berreskuratu nahi duenari; ahozko euskera hobetu eta jarioa lortu nahi duenari... Eta, jakina, baita euskeraz ondo moldatzen di-



renei ere: “Euskeraz bizi bazara eta euskeraren aldeko boluntarioa izan nahi baduzu edo euskeraz gehiagotan egin nahi baduzu, hemen duzu aukera”.

## Ekintza osagarriak urte osoan

Asteroko mintzapraktikako taldeez gain, ekintza osagarri ugari eskaintzen ditu ...eta kitto!-k Berbetan programaren barruan: txangoak, ikastaroak, hitzaldiak... Berbalagun berriak ezagutu eta eus-

kal harreman-sarea zabaltzeko aukera bikaina.

Izen-ematea orain abiatu da, baina urte osoan dago horretarako aukera: [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) webgunean, [elkatea@etakitto.eus](mailto:elkatea@etakitto.eus) helbidera idatzita edo 943200918 telefonora deituta. Programan parte hartzea doan da; eskatzen den gauza bakarra konpromisoa da, hau da, berbalagunek adostutako egun eta lekuetan euskeraz hitz egiteko konpromisoa, besterik ez ■.

Arantza Mata  
Arantza Mata

## Eskolara bai ala bai!

Hezkuntza Sailak ikasturte hasiera presentzialaren aldeko apustua egin zuen eta kartak mahai gainean jarri zituen, baina kalitatezko hezkuntza baten alde? Hezkuntza integrala eskainiz? Higiene-neurri egokiak ahalbideratuz? Ikastetxeek behar dituzten derrigorrezko baliabideak bermatuz?

EZ! EZ! EZ eta EZ! Konfinamendu-sasoian agerian geratu ziren Hezkuntza Sailak izan zituen gestio-arazo eta ahuleziak, eta irailera arteko astia izan du ikastetxeetarako itzulera duina prestatzeko. Aukera izan du Hezkuntza alorreko eragileekin lan kolektibo eta amankomuna egiteko, baina bilerak egon diren arren, berean jarraitu du.

## "Oraindik ikasturte hasieran gaude, baina laster etorriko dira zaintza-arazoak"

2020-21 ikasturterako Hezkuntza Sailak aurkeztutako protokoloak ere berandu bidali zituzten eta, berandu bidaltzeaz gain, ardura ikastetxe eta zuzendaritzen gain laga dute, egoera honen aurrean, zerbait gertatuz gero, babesik gabe utzita.

Hezkuntza Sailaren jokabidea ikusirik, irailaren 15ean greba egin zen, bertan aldarrikatu ziren, esate baterako, pandemiak ikastetxeetan sortutako egoerari aurre egiteko beharrezkoak diren baliabideak, ratio jaitsiera eta langile kopurua gehitzeko araudia, ordezkapenak lehen egunetik egitea, jangelen egoera eta begirale kopurua bermatzea, kasuan kasu baliabide ekonomiko, pedagogiko, formatibo eta pertsonalez hornitzea...

Baina, oraindik ere, hezkuntza-komunitateek, bereziki zuzendaritza-taldeek eta irakasleek, ikasturteari hasiera eman behar izan diete dauzkaten baliabide material eta baliabide pertsonal murriztekin; eta, horretaz gain, protokoloak martxan jarri, kontingentzia-plana egin eta aurrera eraman, gehi alderdi metodologikoa egokitu, gehi ikasleen alderdi emozionala zaindu, gehi euskara indartu, gehi, gehi, gehi...

Eta familiarik; zer gertatuko da gela bat konfinatzen dutenean edota ikastetxeren bat ixten denean? Familiarik laguntza beharko dute seme-alabak zaintzeko, familia askok opor guztiak xahutu dituzte edota seme-alabak zaintzeko aukerarik ez dute izango. Oraindik ikasturte hasieran gaude, baina laster etorriko dira zaintza-arazoak.

Ikasturte berri eta berezi honi ganoraz eusteko, ezinbestekoa da ikastetxeari guztion konfiantza eta laguntza eskaintzea, eta laguntza horretan zer esan handia izango dute guraso-elkar-teek. Animo guztiei!

Felix Morquecho  
Felix Morquecho

## "Ez dute ideiarik!"

Zorionez ezinezkoa da mundu osoa ados jartzea; bestela Jesukristok martxan jarri zuen kontadorea berriro zeroan jarriko genuke. Lehen urtea COVID eta gero, edo hamaikagarren urtea COVID-aren aurretik. Ez dakit zenbat aldatu zuen mundua Kristoren jaiotzak, baina aro berri honetan, hilabete gutxi pasatu eta gero, gureak ezezaguna dirudi. Esatekotan egon naiz igogailuetan orain ez dela eguraldiaz hitz egiten, baina epa! Igogailuan pertsona bat bakarrik joan daiteke!

Baina igogailuetara igo gabe ere, batarekin edo bestearekin, gaia bakarra da. Esaldi guztiak dira demontreko birus horri buruzkoak. Kaletik zozenean zerbait entzuten baduzu, seguru gaiari buruzko zerbait dela. Halako batean, zera entzun nuen: "Ez dute ideiarik!". Ostras! Hori horrela izanda, badago ideiarik ez duten horiei egurra emateko parada. Orain dela urtebete ez genekien horrelako birus bat zer zen, zer nolako eraginak izan zitzaizkeen, nola kutsatzen zen, nola tratatu behar zen... Eta, orain, erantzun guztiak nahi ditugu? Horretan jarri dira ikertzaileak, lan taldeak, ahalik eta bizkorren (eta hoberen) emaitzen bila, eta ematen dizkiguten erantzunak ez dira behin behinekoak izango kasu gehienetan. Barkatu, baina nik zalantzak dituzten horiei kasu egingo diet. Bestetik, seguru daudenak ditugu. Denerako dute erantzuna, nonbait artikulua ikaragarria topatu dute, ikerketa alternatiboa edo aurkikuntza iraultzailea. Eta seguru, seguru daude. Horiek bai dutela ideia, eta arrazoia, dudarik gabe (beren barnean). Bakoitzak nahi duena sinestuko du, baina kritikoa izatea ez da aurreiritzietatik abiatzea honi itsu-itsuan sinesteko eta beste horri ez. Nork du arrazoi? Niri ez galdetu, ideiarik ez.

**"Esatekotan egon naiz igogailuetan orain ez dela eguraldiaz hitz egiten, baina epa! Igogailuan pertsona bat bakarrik joan daiteke!"**



40 zentimetrotarainoko elurra izan zuten bidean Deporrek mendizaleak Aran-en egindako azken bi etapetan.

## Deporreko mendizaleak Pirinioetako Aran bailaran izan ziren aurreko asteburuan

>>> Hainbat hilabeteetako geldialdi behartuaren ondoren, Klub Deportiboko mendi taldekoek Aran bailarara egin zuten irteera, aurretik pendiente zuten bailara horretako itzulia azken bi etapak burutzeko. Azken orduan izandako bajekin azkenean hamabi laguneko taldea osatu zuten Pirinioetako irteera hori egiteko eta, horrez gain, zapatuan jasan behar izan

zuten eguraldi txarrak egun horretako ibilbidea aldatzea ekarri zuen. Baus herrian hasi eta Bossotera arteko ibilbidea egin zuten horrela, "antzina herri batetik bestera joateko erabiltzen zituzten bideetatik". Euria egin bazuen ere, ondo aprobetxatu zuten eguna. Domekan, berriz, eguraldi bikaina lagun zutela denboraldiko lehenengo elurrez "ederki gozatzeko aukera"

izan zuten. 40 zentimetrotaraino heltzen zela diote Hospice de Francetik abiatuta Artiga de Linera iritsi zirenek.

Urrirako Deporrek mendi batzordeak prestatutako egitarauan bi irteera aurreikusten dira, biak ere Artzaintza Naturbidearen etapak osatzeko: hilaren 17an Uharte-Arakiletik Lizarrustira eta 31n Lizarrustitik Otxaurtera joango dena.

## Eibarrek Primera Iberdrolan egingo du debuta etzi

>>> Azken denboraldian eskrutatutako igoeraz gozatzeko unea heldu da Eibar FT-ko emakumezkoen lehen taldearentzat, hainbat hilabeteetan partidu ofizialik jokatu gabe egon ondoren. Euskal Kopako finalerdietan Athletic-ekin galdu zuten aurreko astean eta domekan Ligari ekingo diote Iker Dorronsororen neskek Unben, goizko 11:00etan, Betis taldearen bisita jasota. Gizonezkoen lehen taldeak ez du zuzendu oraindik bere ibilbidea liga hasieran eta, orain arte jokatu itako lau partiduetan, puntu bakarra bereganatu du. Eguazten gauean Elx-ekin galdu zuen Ipuruan eta bihar Valladoliden auka jokatuko dute Zorrillan eguerdiko 13:00etan.



Jujuma fitxaketa berria.

●●● FUNEUSKADI  
Grupo Asistia

●●● FUNERARIA MUGICA  
Funeraria

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p>	<p>Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

## IÑAKI Azpiri Arrillaga

"Eskerrik asko, Iñaki, elkarrekin pasatu ditugun momentu bikain guztiengaitik"

**BETI egongo zara GURE ARTIAN**

zuzen kuadrila

>>> Domeka goizean Simon Aldazabal Sariaren 25. edizioa izango da jokoan. Bizi dugun egoerak Arrateko jaietako egitarautik ateratzea ekarri bazuen ere (egia esan, aurten ez da egutegirik izan), hiru-lau asteko atzerapenarekin baina oraingoan ere jokatu da. Betiko moduan, parte hartuko duten korrikalariak Depor paretik irten beharko dira eta Arrateraino igo, Orbeko pistatik. Hori bai, etzi irteera txandakatuta koari jarraituko diote, 15 segunduro hiru lagun abiatuko baitira, goizeko 10:30etik aurrera. Saillkapena egongo bada ere, domekakoan ez da sari banaketarik izango lehenengoentzat; horren ordez, parte-hartzaile guztiek 25. edizioako oroigarria jasoko dute. Klub Deportiboko atletismo taldeak antolatutako proba horretarako izen-ematea aurretik egin beharko da, Deporren bertan, eta inskripzioa doan da.

## Simon Aldazabal Sariak zilarrezko ezteiak ospatuko ditu etzi goizean



1996an abiatu zen probak zilarrezko ezteiak betetzen dituela aprobeztatuz, orain arte jasotako historia errepasatu nahi izan dugu, aldameneko koadroan ikusi dezakezuen.

Gizonezkoetan, Juan Aldaik irabazi zuen lehenengo edizio hura eta bera jarraitzen du izaten nagusi garaipen gehien eskuratutakoan zerrandan: bost aldiz nagusitu da eibartarra, eu-

retako batean Asier Cuevasekin batera helmugaratuta (2000. urtean). Hirutan irabazi du Walter Becerrak eta bitan nagusitu dira Jon Garraus, Eduardo de Miguel eta Pello Osoro eibartarra. Irabazleen artean dago baita Jose Mari Bernedo eibartarra ere, 2013an garaile. Emakumezkoen mailan, Pilar Arriola elgoibartarra nagusitu zen hasierako edizioetan (lau bereganatu zituen) eta atzetik ditu, hiruna garaipenekin, Nerea Amilibia eta Aitziber Urkiola eibartarra. Irabazleen zerrandan badira beste eibartar batzuk, Ane Ziaran eta Cristina Loeda kasurako. Bestalde, orain arte izandako markei dagokionez, indarrean jarraitzen dute 2011n El Hassan Oubaddik lortutako 25 minutu eta 2 segundokoa, eta bi urte lehenago Nerea Amilibiak eskuratutako 32 minutu eta 4 segundoko denbora.

URTEA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	OMENDUA
1996	Juan Aldai 25'57"	Pilar Arriola 37'50"	Pedro M. Aldazabal
1997	Juan Aldai 25'41"	Pilar Arriola 37'17"	Jose Luis Portu
1998	Jose Antonio Ubioa 27'02"	Fosa Herrero 47'04"	Pedro Agirregomezkorta
1999	Juan Aldai 25'17"	Pilar Arriola	Riski Zubau
2000	J. Aldai & A. Cuevas 27'02"	Pilar Arriola 55'25"	Victorio Agirregomezkorta
2001	Juan Aldai 25'52"	Lourdes Garzabal 35'21"	Pedro M. Ansolejalegi
2002	Gonzal Guerrero 26'26"	Agurtzane Artuz	Jesús Guzmán
2003	Josu Aragi 26'45"	Leire Ezpeleta 38'21"	Cristina Loeda
2004	Jon Garraus 25'31"	Nelia Romero 32'17"	Asier Cuevas
2005	Jon Garraus 25'04"	Garazi Aranz 37'07"	Martxal de Arna
2006	Paixi Urizar 26'41"	Nerea Amilibia 32'54"	Juan Luis Azcoaga
2007	Enkiz Itzazu 28'56"	Nerea Amilibia 32'04"	Fernando Serrano
2008	Walter Becerra 28'10"	Cristina Loeda 38'21"	Alberto Zabala
2009	Walter Becerra 28'15"	Nerea Amilibia 32'05"	Fernando Serrano
2010	Walter Becerra 26'03"	Esther Papei 40'00"	Fernando Serrano
2011	El Hassan Oubaddi 25'02"	Aitziber Urkiola 30'35"	Fernando Serrano
2012	Eduardo de Miguel 27'02"	Ane Ziaran 36'51"	Fernando Serrano
2013	Jose Mari Bernedo 27'04"	Albizar Urtola 34'08"	Fernando Serrano
2014	Eduardo de Miguel 26'50"	Albizar Urtola 33'00"	Fernando Serrano
2015	Josu Urste 28'54"	Paula Zorain 37'28"	Fernando Serrano
2016	Sergio Lopez 29'10"		Fernando Serrano
2017	Pelo Osoro 27'07"		Fernando Serrano
2018	Pelo Osoro 28'05"		Fernando Serrano
2019	Javier Goñi 28'44"		Fernando Serrano

## Urbateko waterpolistak II. Maila Nazionalera igotzeko ahaleginean

>>> Iritsi da ordua. Bihar, 20:00etan hasita, Urbat Urkotronikeko talde nagusiak Majadahondaren aurka jokatuko du, partidu bakar batean bietatik 2. Maila Nazionalera igoko den taldea erabakiko den neurketan. Madrilgo Mundial 86 igerilekuan jokatuko den partidua zuzenean eskainiko dute Espainiako Igeriketa Fe-

derazioaren streaming kanalean. Azken bi denboraldietan Euskal Herriko Liga eta Kopa irabazi dituen Orbeako taldea Espainiako mailara igotzen saiatuko da horrela: "Apustuak madrildarren alde badaude ere, ez da lehenengo aldia ezinezkoa zirudiena gure mutlek lortu dutela". Ea bihar halakorik errepikatzen den.



## Astelenak atek zabalduko dizkio etzi denboraldi profesionalari

>>> Alarma egoerak bertan behera laga zuen pilota profesionala binakako txapelketa nagusia orain dela ia zazpi hilabetez hartara bueltatuko da. Eta bada partidu bat orduan, martxoan, aukeratu pilotekin jokatuko dena: justu etziko jaialdian jokatuko de neurketa nagusia. Martxoan ere Eibarko Katedralean zen jokatzea Olaizola II-Urrutikoetxea eta Ezkurdia-Martija bikoteen artekoa, eta horregatik eutsi diete orduko materialari. Ez da gauza bera gertatuko finalerdietako bigarren jardunaldiko beste norgehiagokan, azken hori Bilbora aldatu baitute (horrek pilotak berriro aukeratzea ekarri dizkie Jaka-Zabala eta Agirre-Albisu lehen jardunaldiko bikote galtzaileri). Eibarren finalerdietako lehen jardunaldiko irabazleek neurtuko dituzte indarrak, eta irabazleak ia ziurtatuta izango du finalerako txartela. Prestatutako jaialdia bikaina da inondik begiratuta ere, hasie-

rako partiduan ere pilotari handiak izango direlako nor baino nor: Irribarria txapelketa eta Pello Etxeberria eta Ladis Galarza bestetik. Amaitzeko, bestalde, Dario-Garmendia eta Salaberria-Oier Etxeberria bikoteen artekoa izango da.

### Afizionatuak gaur

Deporreko pilotariak, bestalde, jardunaldi interesgarria dute zain gaurko honetan Astelenan bertan. Kadete mailakoan, Ibon Ibarra eta Haitzart Iraolagoitiak bigarren jardunaldiko beste norgehiagokan, azken hori Bilbora aldatu baitute (horrek pilotak berriro aukeratzea ekarri dizkie Jaka-Zabala eta Agirre-Albisu lehen jardunaldiko bikote galtzaileri). Eibarren finalerdietako lehen jardunaldiko irabazleek neurtuko dituzte indarrak, eta irabazleak ia ziurtatuta izango du finalerako txartela. Prestatutako jaialdia bikaina da inondik begiratuta ere, hasie-



Eibarko errugbilariek gero eta maila altuagoan dihardute.

## Eibar Rugby Taldeko hiru jokalariek Espainiako selekzioarekin

>>> Urriaren 1etik 13ra arte iraungo duen azken deialdian, Pedro de Matias entrenatzaileak gure herriko taldeko hiru jokalariek deitu ditu emakumezkoen Espainiako selekzioarekin lan egiteko: "Lehentasuna 15ekoa izanik, 7ko taldearen entrenatzaileak etorkizuna duten jokalariek deitu ditu kontzentrazio horretara", diote klubetik. Amaiur Mayo eta Aleu Cid

lehendik ere izan dira selekzioarekin, baina Nerea Garciaentrenatzaileak bere bataioa izango da honako hau: "Oso profesionalak dira hirurak, azkarrak eta teknika maila handiarekin, euren onena ematera joango direnak". Valladoliden, De Matiasekin batera, Macarena Agirre managerra, Alvaro Gorostiza prestatzaile fisikoa eta Sergio Lopez fisioa izango dira.

### IÑAKI AZPIRI ARRILLAGA

"KAPURRO"  
(2020-IX-23)

*"Betirako gure bihotzetan maite izango zaitugu"*

SENITARTEKOAK

### JOSEFA LASCURAIN CORTABERRIA

"LECETA BASERRIA"  
(2020-VII-23)

*"Betirako gure bihotzetan maite izango zaitugu"*

ETXKOAK



## Kirola egitea da erronka

Kirola egitea ezinbestekoa da osasun fisiko eta mental egokia edukitzeko. Kirolarekin, gainera, jarduera fisikoaz haratago doazen gaitasunak garatzeko aukera eskaintzen da, gazteenentzat batez ere. Pandemiaren ondorioz muga ugari ezarri dira edozein ariketa egiteko orduan, baina, era berean, bizitza osasuntsuaren aldeko aldarria egiten da. Gaur egun, kirol erronkak zehaztea baino gehiago, kirola egitea da erronka nagusia.

**G**ipuzkoako Foru Aldundiak urriaren 1etik aurrera eskola kirola has-teko baimena eman du, baina Eibarren ezagutzen dugun Mutikirolak programak itxaron egin beharko du oraindik. Eneko Garcia koordinatzaileak aipatu digunez, Mutikirolak hilaren 19an hasteko asmoa dute, baina gauza asko daude airean oraindik.

Udalak, antolatzaileak, ikas-tetxeak eta ikasleek protokoloak zehaztu eta onartu behar dituzte, eta hainbat aldaketa egin beharko dira aurreko ikas-turteekin alderatuz. "Protokolo

berriekin ikastetxe ezberdinetako ikasleak ezin izango dira elkarrekin kirolean ibili, ezin izango dira nahastu", dio Garciak, "eta ondorioz, ordu kopuru, instalazio eta monitorea gehiago beharko ditugu behar-asetzeko, horrek dakarren kostu gehigarriarekin".

Herriko umeek ekainean izan zuten Mutikirolak izena emateko aukera, baina orain berri eman beharko izango dute izena. "Orduko matrikulazioa ez dator bat gaur egun ezarritako ordutegiarekin eta egoerarekin", esan digu Garciak. Aste honetan amaituko da matrikula egiteko

### Aurtengo Mutikirolak programa nolakoa izango den zehazten dihardute oraindik

epea eta, izena eman duten haur-  
rren kopurua jakinda, zintzilik  
dauden kontuak ixten joan ahal

izango dira. "Kopuru horrekin jakin ahal izango dugu proposatutako ordutegiak bete ahal izango diren edo ez", koordinatzaileak dioenez. "Adibidez, ikastetxe batetik lau lagunek bakarrik ematen badute izena, ez lirateke kopuru minimora iritsiko eta ezin izango litzateke ekintza egin. Horrela balitz, guraso elkarteekin elkartu beharko ginatke egoerari konponbidea aurkitzeko". Hainbat pauso eman behar dituzte oraindik, baina ikasturte honetan haur-  
rrek Mutikirolak partehar-  
tze moduan egongo direla uste du Garciak.

**Kirola egiteko modu berriak**  
Foru Aldundiak ezarritako arauen arabera 2021eko ur-tarrilera arte ez da lehiarik izango, kontaktu gabeko kirola egin behar da eta astegunetan bakarrik. Eibarren errugbia, eskubaloia eta foballa egiteaz gain, atletismoa, duatloia, saskibaloia, judoa, waterpolo, pilota eta patinajea egin ohi da, baina aurrean, umeen arteko kontaktua ekidin nahi denez, kirola egiteko modua ere moldatu egin beharko dute. "Aldundiak umeen mugikortasuna bultzatu nahi du eta agian hori izan beharko litzateke aurtengo helburua, kirol ezberdinak landu behar", Garciak esan digunez. Judoa, pilota eta beste hainbat kirol ezin izango dituzte egin, eta jolas edo ekintza ezberdinak asmatu beharko dituzte.

Erakundeek ezarritako arauarekin, gurasoen eta umeen kezkekin, eta dituzten baliabideekin malabarismoa egin beharko dute Mutikirolak. Gainera, hainbat kontraesanean aurre egin beharko diete. Adibidez, ikastetxe ezberdinetako ikasleak ezin dira nahastu, baina herriko kirol klubek antolatutako ekintzetan nahastu egingo dira.



**"Aurtengo umeen mugikortasuna izan behar da helburua, kirol ezberdinak landu behar"**

**Galduta, baina positibo**  
Alfredo Cobo eibartarra heziketa fisikoko irakaslea da Aretxabaletako Kurtzebarri ikastetxean eta berak ere kontraesan asko ikusten ditu kirola

**"Heziketa fisikoa hain garrantzitsua bada, eman diezaiozun merezi duen garrantzia"**

laren gaiaren inguruan. "Paradoxikoa da. Martxotik hona asko aldarrikatu da ohitura osasungarriak edukitzearen, kirola egitearen eta abarren kontua, baina ikasturtea hasi da eta heziketa

kuntza sistemak beste irakasgai guztiak indartu ditu hezikuntza fisikoa ezik", esan digu.

Hezikuntza sistemak ez du aintzat hartu heziketa fisikoa eta zentro bakoitzean euren protokoloa zehaztu behar izan dute inongo irizpiderik jaso edo inork bideratu gabe. "Geure kabuz ibili gara materiala, protokoloa eta abarrak sortzen", dio Cobok.

Protokoloa ezarrita, ikastetxe zuzendaritzaren babesarekin eta ikasle ulemenarekin, Cobok eta lankideek modu positiboan egiten diote aurre orainaldiari eta etorkizunari, egoera berezi honetan etengabe aurrean jartzen zaizkien oztopoei aurre egiteko prest.

Ordutegiak moldatu dituzte oraingo beharrei erantzuteko, ariketa berriak prestatu dituzte eta, eguraldia lagun, orain arte ondo moldatu dira eskura duten instalazioetan. Baina negua datorrenean, zer?

Bere ustez pena da egoera honetan heziketa fisikoa gehiago ez bultzatzea eta betikoarekin ez apurtzea. "Ez diet garrantzia kendu nahi beste ikasgaiei, baina heziketa fisikoa hain garrantzitsua bada, eman diezaiozun merezi duen garrantzia", bere iritziz. ■



## ...eta kitto! astekariko ETXERIK ETXEO BANAKETA-ZERRENDA BERRITZEN DIHARDUGU

Eibarko etxeetan aldizkaria JASOTZEKO edo JASOTZEN JARRAITZEKO zerrendak bete behar dituzue.

Hurrengo asteetan kale hauetako pegoretan jarriko dira orriak:

**JULIAN ETXEBERRIA - ZULOAGATARREN - SANSABURU - ERREKATXU - BIDEBARRIETA - URTZAILE - ARANE**  
[banaketa.etakitto@gmail.com](mailto:banaketa.etakitto@gmail.com)

**eskolara buelta!**

**elite**  
EQUIPAMIENTO DE OFICINAS

Eskola-materiala, papertegia, motxilak, idazmahaiak, aulkiak...

BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA

Isasi, 29 943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es



## Eskola jazarpena lantzeko saioak antolatu dituzte Liburutegian

Bullyingaren aurkako sentsibilizazioa lantzeko jarduera antolatu dute Udaleko Haurrak, Nerabeak eta Familia arloaketa Udal Liburutegiak elkarlanean. Azaldu dutenez, "bullyingari dagokionez, ezinbestekoa da ikastetxeen inplikazioa. Horregatik, ikasleei zuzendutako ekintzak proposatu dira. Helduoi zaila zaigun edo sozialki tabuzat jotzen den gai bati ekiteko tresna gisa balio duen ipuin bat erabiliko da oinarri modura. Ipuinetik abiatuta, erakusketa bat sortzen da eta, horren bidez, hainbat jarduera egingo dira". Hori guztia lantzeko aukeratu duten liburua

Gregie de Maeyerrek idatzi eta Koen Vanmechelenek ilustratu duen "Juil" da. Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetako ikasleei zuzenduta dauden saioen dinamizatzailea Natalie Hickey izango da eta saio bakoitzak ordu eta erdiko iraupena izango du. COVID-19a dela eta, saio bakoitzeko gela bat hartuko dute. Erakusketa, berriz, urriaren 22ra arte egongo da ikusgai, Liburutegian.

Interesa duten ikastetxeek Liburutegiarekin harremanetan jarri beharko dira, emailez (liburutegia@eibar.eus) edo telefonoz (943 70 84 37), egutegia osatzen joateko.

## Urriaren 25era arte egongo da ikusgai Alfa 1920-2020 erakusketa Portalean

Aurreko astean zabaldu zuten Alfa 1920-2020 erakusketa Portalean. Lantegiaren mendeurrena ospatzeko Armagintzaren Museoak Alfa enpresaren lankidetzarekin antolatu duen erakusketa urriaren 25era arte egongo da ikusgai erakusketa aretoan, martitzenetik domekara bitartean, 18:30etik 20:30era. Segurtasun-neurriak direla-eta, aforoa kontrolatua izango da, eta ezingo dira 100 lagun baino gehiago egon aldi berean. Erakusketarekin batera, Alfa San Andres pasealekuan egon zeneko mural batean



oinarritutako tailerra eskainiko dute, bihar eta urriaren 17an, 18:30etik 20:30era. Bertan parte hartzeko ez da behar aldez aurretik izena ematea.



## Sei urtetik gorako haurrentzat itzal titere laborategia emango dute urriaren 23an

Umeentzako itzal titere laborategia antolatu du Juan San Martin Liburutegiak urriaren 23rako. Liburutegien Egunaren ospakizunaren barne dagoen jarduera Eñaut Gorbearen eskutik garatuko da. 2013. urtean hasi zen itzala eta argiarekin lanean. Ordutik eta gaur arte lan ezberdinak sortu ditu itzal titerak eta itzalek orokorrean eskaintzen dituzten aukerak oinarritat harturik. Azken urteetan Lekeitioko Arropaineko Arragan ikastolari zuzendutako Espazioa eta Gauzak formakuntza ekimenean parte

hartzten du Argia eta Itzalak programaren arduradun gisa.

Laborategi didaktiko eta dibertigarri horietan haurrek, euren kabuz, material erraz eta erabilgarriez euren elementuak sortuko dituzte, ondoren, oihalaren atzean inprobisatu eta esperimentatzeko aukerarekin.

Sei urtetik gorako umeek eman dezakete izena (Liburutegian), plazak mugatuak daude-eta. Itzal titere tailerretan Lekeitioko Arropaineko Arragan ikastolari zuzendutako Espazioa eta Gauzak formakuntza ekimenean parte



## Gaur iluntzean zuzenean arituko da The Mood Rings taldea

The Mood Rings Eibarko taldeak kontzertua emango du gaur, 20:30ean, Coliseoan. Mutrikun Axular Arizmendirenen estudioan bere lehen lana grabatzen amaitu berri duen taldeak berriari 60. hamarkadako kutsua duten abestiak bildu dituzte. Gaurko kontzertuan irailean grabatzen amaitu duten disko-

ko kantuak aurkeztuko dituzte, diskoan agertzen ez diren beste batzuekin batera. Emanaldia Udaleko Kultura sailak antolatu du eta sarrerak 5 eurotan daude salgai, interneten, Kutxabank sarrera-salmentarako zerbitzuaren bitartez. Bestela, Coliseoko leihatilan eros daitezke, emanaldia hasi baino ordu erdi lehenagotik hasita.



## Euskaraldian Ahobizi eta Belarriprest rolekin parte hartzeko izena eman daiteke

Euskaraldiaren bigarren edizioan izena emateko epea zabaldu zen irailaren 24an. Aurreko edizioan moduan, ahobizi eta belarriprest rolekin parte hartuko dute azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den ariketa sozialeko parte hartzaileek. Norbanakoek euskaraldia.eus webgunean edota mugikorretarako sortu duten aplikazioan eman dezakete izena, ahobizi edo belarriprest bezala. 2020ko Euskaraldiko bideoak ere aurkeztu zuten aurreko astean Bergarako Seminararioan egin zuten irekiera ekitaldian. Iruñeko Broken Brother Brass Band taldeak egin du kantua eta Sus-trai Colina bertsolariak jarri dizkio berbak. Doinu dantzagarriak *Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan* egiteko.

Bestalde, Eibarko Udaltzatzak bat egingo du Euskal Herri osoan 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bideratuko den Euskaraldiarekin eta ekimenearen sustatzaile ere izango

da. Horretarako, Udalak, entitate gisa, Euskaraldian eman du izena, "horretarako ariguneak identifikatuz eta bultzatuz". Horrekin batera, udala osatzen duten pertsoneri, herritarrei eta herriko eragileei ahobizi eta belarriprest izatera eta ariguneetan parte hartzerara deitu diete. Hala adierazi zuten asteleheneko Udal Batzarrean. Bertan irakurri zuten adierazpenaren arabera, "ordezkari politikoan egiteko nagusia izango da, Euskaraldiaren markoan eta bereziki Udalean eta Udalaren ardurapeko entitateetan, ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta arigune gehien, eta ahobizi eta belarriprest gehien aktibatzekeko urratsak emango ditugu, arduradun politikoak izan, nahiz langileak izan". Gainera, Eibarko Udalak neurriak hartuko ditu "hizkuntza-praktika horiek posible izan daitezzen eta praktika horiei etorkizunean eutsi ahal izateko".



## Musika Bandaren kontzertua

Eibarko Musika Bandak kontzertua emango du domekan, 12:30ean, Coliseo antzokian. Carlos Sanchez-Barbaren zuzendaritzapean, hau da hurrengo saiorako prestatu duten egitaraua: "Liberty Bell" (John Philip Sousa), "Soul Bossanova" (Quincy Jones), "Elvis Selection N°1" (konp. Willy Haurvast), "African Symphony" (konp. Naohiro Iwai) eta "The Blues Brothers Revue" (konp. Jay Bocook).

## Andriuren single berria kalean

Andriu da Andrea Garcia eibartarraren proiektu musikala eta gaur bertan single berria kaleratu du hainbat plataforma digitaletan. "Hoy vas a triunfar" da Andriuren lan berriaren izena eta berak marraztu du lanaren azala. Andriuk "Que todo pase" izeneko abestia kaleratu zuen maiatzean eta lan berri honekin zeresana emango duen artista dela berretsiko du eibartarrak.



## Txistularien kalejira Amañan

Usartza Txistulari Bandakoek asteburu honetan ere egingo dute kalejira. Domekan 10:30ean hasiko dira eta goiza Amaña auzoan emango dute. Urriaren 18an, berriz, kontzertua emango dute Untzagan, 12:30ean hasita.



## Sole Txurruka Kortaberria

II. URTEURRENA: 2018-9-29

Beti gure goguan  
Maite zaitugu

AHIZPA, SEME-ALABAK ETA BILOBAK





Arteak txiki laga du Untzagako dorrea. RAMON BEITIA

			3			4
	3				5 6	
1	9			6		7
5			9			
6			7 1 3			9
			8			6
	6	9				4 5
	7 2					8
9			4			

3 5				7 2		4
						5
			9			7
6 1			2		5	8
			7			
4	5		8			6 3
1				4		
	6					
8	2 6					7 1

soluzioa

A	L	B	C	P	F	G	V	R	B
C	R	G	L	I	N	S	Z	Z	V
C	V	Z	B	Z	E	I	O	C	
P	C	A	T	E	C	O	D	P	A
O	S	V	C	I	Z	R	Z	D	
D	Z	Z	B	E	R	E	L	I	O
P	Z	C	L	E	S	R	F	O	L
L	R	S	O	C	F	Z	C	B	
P	S	O	A	C	I	O	C		

**SUDOKUAK**

soluzioa

L	Z	V	G	C	P	Z	F	R	B
O	C	G	O	T	Z	P	S	S	
G	R	O	F	O	E	C	E	Z	
C	P	Z	B	L	O	Z	P		
C	P	L	P	A	S	B	E	O	
B	R	O	C	Z	P	Z	L	I	O
L	E	O	L	S	O	P	T		
P	S	O	Z	P	C	L	R	I	O
P	I	Z	F	O	R	A	C	I	O

**10 DESBERDINTASUN**



**HIRU BANAKAKO**



NOE-REN  
ARKA  
honetan  
badira  
3 ANIMALIA  
bikoterik  
ez dutenak;  
ea aurkitzen  
dituzun



**Telefono jakingarriak**

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

**Farmaziak**

<b>BARIXAKUA 2</b>
EGUNEZ   Barandela (Z. Agirre, 4)
<b>ZAPATUA 3</b>
EGUNEZ   Lekunberri (Isasi, 31)
<b>DOMEKA 4</b>
EGUNEZ   Lafuente (Sostoatarren, 10)
<b>ASTELEHENA 5</b>
EGUNEZ   Elortza (J. Gisasola, 18)
<b>MARTITZENA 6</b>
EGUNEZ   Iraundegi (Calbeton, 19)
<b>EGUAZTENA 7</b>
EGUNEZ   Mendiñueta (Urkizu, 6)
<b>EGUENA 8</b>
EGUNEZ   Azkue (T. Etxebarria, 4)
<b>BARIXAKUA 9</b>
EGUNEZ   Zulueta (San Agustin, 5)

**GAUEZ BETI**, 2020an,  
Barandela (Ziriako Agirre, 4)

**Eguraldia** (euskalmet.net)**Hildakoak**

- **Iñaki Azpiri Arrillaga**. 64 urte. 2020-9-23.
- **Natividad Rodriguez Velasco**. 95 urte. 2020-9-23.
- **Ana Atxotegi Lonbide**. 49 urte. 2020-9-25.
- **Maria Garcia Bornique**. 89 urte. 2020-9-25.
- **Maria Concepcion Rodriguez**. 77 urte. 2020-9-25.
- **Josefa Cid Lozano**. 94 urte. 2020-9-26.
- **Eufrasio Moradillo Diez**. 83 urte. 2020-9-26.
- **M<sup>a</sup> Concepcion Taboada Duran**. 74 urte. 2020-9-27.
- **Pili Izquierdo Santamaria**. 86 urte. 2020-9-28.
- **Angel Sebastian Dasilva Cardoso**. 81 urte. 2020-9-28.
- **Julia Breña Rodriguez**. 92 urte. 2020-9-29.

**Jaiotakoak**

- **Oinatz Roitegi Garcia**. 2020-9-19.
- **Markel Pacheco Martin**. 2020-9-21.
- **Amadou Cisse Fall**. 2020-9-23.
- **Ane Berganzo San Martin**. 2020-9-24.
- **Ishak Jebari Bayoud**. 2020-9-24.



**ek!**  
**ESKELAK,**  
**URTEURRENAK**  
**ESKERTZAK...**  
**jartzeko:**

**688 62 76 89**  
publizitatea@etakitto.eus

**ek!**

**688 62 76 89**


publizitatea@etakitto.eus

**Zorion-agurrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurrez hartuko**

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bakideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ANER** Lopez Egaña, domekan 9 urte beteko dozu-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, zure anaixa Danel eta Noa eta Luka lehengusu-lehengusiñaren partez.



Zorionak, **IZEI** Aranberri Zubizarreta, datorren egunian 5 urte beteko dozu-eta, mutil haundi! Musu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, **SAIOA**, zure komunixo egunian. Juanjo eta Begoñaren partez.



Zorionak, **BERNAT**, urriaren 4an 3 urte egingo dozu-eta, maitxia. Patxo bana Oinatz, Lur eta Naikerren partez.



Zorionak, **LUKE**, irailaren 22xan 6 urte bete zenduaz-eta. Patxo potolo-potolua infinito maite zaittugun guztien partez. Muuaaa!



Zorionak, **MIKEL**, txapeldun, irailaren 26xan 10 urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Urkoren partez.



Zorionak, **MADDI**, Martitzenian 8 urte egin zenduaz-eta, maitxia! Patxo haundixa famelixa guztiaren eta, batez be, Ekhiren partez.



Sevillan bizi arren, gertu sentitzen zaitugu. Zorionak, **ANDERTXU**, zure 2. urtebetetzian!!



Zorionak, **JULEN**, hillaen 8xan 5 urte beteko dozu-eta! Musu erraldoi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MARIA** Agirregomezkorta Ribeiro, gure printzesak astelehenian 2 urte beteko ditte-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MIKEL** Treviño, eguaztenian 9 urte bete zenduaz-eta. Musu potolo bat Iñaki, Lucia eta famelixa guztiaren partez!!!

**ek!**

**ETXEKOEN ZORION-AGURRAK bidaltzeko**  
**publizitatea@etakitto.eus**

**ZINEA COLISEO****1 ARETOA**

• **3an:** 16:00, 19:00, 22:00  
• **4an:** 17:00, 20:00  
• **5ean:** 20:30  
**"Akelarre"**  
Zuzendaria: Pablo Agüero

**2 ARETOA**

• **3an:** 16:00, 19:00, 22:00  
• **4an:** 17:00, 20:00  
• **5ean:** 20:30  
**"Explota Explota"**  
Zuzendaria: Nacho Alvarez

**ANTZOKIA**

• **3an:** 19:45, 22:45  
• **4an:** 20:45  
• **5ean:** 20:30  
**"Rifkin's Festival"**  
Zuzendaria: Woody Allen

**ANTZOKIA**

• **3an:** 19:45, 22:45  
• **4an:** 20:45  
**"Pinocho"**  
Zuzendaria: Mateo Garrone



**MARIA CONCEPCION RODRIGUEZ**  
(2020ko irailaren 25ean hil zen, 77 urterekin)  
**"BETIRAKO GURE BIHOTZETAN"**  
Eskerrik asko, amama Concha  
— ZURE FAMILIA —  
BUENOS AIRES ETXEA

# Iragarki laburrak

Iragarki laburrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurre hartuko

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
  - Pisu berria salgai Urkizun. 2 logela, egongela, sukaldia eta 2 bainugela. Guztiz jantzia, bizitzera sartzeko prest. Ikusteko arazorik ez. Tel. 666927559.

### 1.2. Errentan

- Neska euskaldunak pisu hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 646369330.
- Pisua alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Guztiz berriztuta. Bikoteentzako aproposa. Kanpora begira eta argitsua. Tel. 637587823.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Neska euskaldunak garaje itxia edo marra bat hartuko luke, trasteroarekin, Eibarko erdialdean. Tel. 646369330.
- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256.

### 3.2. Errentan

- Garajea hartuko nuke alokairuan San saburu, Txaltxa Zelai edo Urki inguruan. Tel. 645007388. Jasone.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 722630678.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631980531.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta etxeak garbitzeko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631382330.
- Emakume euskalduna eskaintzen da zainketa lanetarako edota etxeko lanak egiteko. Autoarekin. Tel. 657794652. Nerea.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako (etxeak, bulegoak) egiteko. Eusko Jauriaritzaren tituluaarekin. 7 urteko esperientzia. Tel. 603514985.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta tabernetan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 602825740.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 656826860.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631759107.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 610668183.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako: tailerrean lan egin, garbiketarako... Tel. 722531998.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 612418183.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 695074117.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (jendea euren etxeetan artatzeko tituluaarekin) eta garbiketarako egiteko. Urtetako esperientzia. Tel. 617610706. Isabel.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Externa eta orduka. Tel. 642505360.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta errefe-

### rentziak. Tel. 610067042.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 688735551.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Goizeko 10:00etatik arratsaldeko 15:00ak arte. Tel. 663530302.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Goizeko 10:00etatik arratsaldeko 15:00ak arte. Tel. 635802382.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632642320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631836738.
- Neska eibartarra (LHko graduatua, ingelesez) eskaintzen da umeak goizez zaintzeko (eskolara eraman, etxean lagundu...). Esperientziarekin. 625539584.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 604120104.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 642505360.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 658398474.
- Emakume eibartarra eta euskalduna eskaintzen da menpekotasun egoeran daudenei edozein lanetan laguntzeko. Urte askotako esperientzia. Tituluduna. Tel. 667376212.

### 4.2. Langile bila

- Laguntzaileak, higienistak eta dentistak behar dira Eibarko hortz-klinika batean. Tel. 943700082.
- Langileak behar dira Eibarko hortz-klinika batean hortz-higienista bezala jarduteko. Berehala hasteko. Bidali kurrikuluma: hortz.klinika.06@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Neska euskalduna eskaintzen da klase partikular pertsonalizatuak emateko (Matematika, Fisika, Marrazketa...). Urteetako esperientzia. Tel. 688678199.
- DBH eta Batxilergo klase partikularak ematen dira, edozein arlotan. 3 laguneko taldeetan edo banaka, baita online ere. Tel. 615708043.
- Ingeles filologo elebidunak (11 urte Erresuma Batuan) ingelesezko klaseak ematen ditu. Ume eta helduentzako maila guztiak, kasu bakoitzera egokitutako ikas-erremintekin. Tel. 617265575. Avelina.
- Euskarazko klaseak ematen dira. Perfiletarako prestakuntza (IVAP, HABE...) eta umeentzako eskolako errefortzua. Tel. 620608065.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularak ematen dira DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestakuntzako ikasleei. Antzeko ezaugarriko 4


laguneko taldeak gehienez. Gainditu dutenen indize handia. Urte askotako esperientzia. Tel. 615-705945.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikaste-ko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.


## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Bizikleta estatikoa salgai. Berria, ia erabili gabe. BH Fitness Astra H 286. Pantaila digitala, entrenamendu kardiobaskularra, pultsazioen kontrola. 85 kilorainoko erabiltzailearentzat. 150 euro. Tel. 697288990



**688 62 76 89**  
publizitatea@etakitto.eus



# Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre AUTHORISED CENTRE ES 438

**ABENDUKO DEIALDIA**

**EIBAR / DURANGO / ARRASATE**

**MATRIKULA EPEA Urriaren 16ra arte**

AZTERKETA	DATA	PREZIOA
PET FS	Abenduak 12 (larunbata) azterketa osoa	94 euro
FCE	Abenduak 12 (larunbata) azterketa osoa	180 euro
CAE	Abenduak 12 (larunbata) azterketa osoa	188 euro

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

<b>ARRASATE:</b>	Parlance	943 77 06 83	<b>DEBA:</b>	Akabi	943 19 16 79
	Idiomaster	943 79 07 84		North Street English	652 44 86 46
<b>BERGARA:</b>	Espolon School of English	943 76 03 53	<b>DURANGO:</b>	San Jose Maristak	94 681 00 58
<b>EIBAR:</b>	Link Idiomas	943 20 39 59	<b>MARKINA:</b>	Lea Artibai Ikastetxea	94 616 90 02
	Target Schools of English	607 83 36 13	<b>ELORRIO:</b>	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
<b>ERMUA:</b>	Akerlei	943 17 66 32	<b>BERRIZ:</b>	Speak up	94 622 52 94
<b>ELGOIBAR:</b>	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	<b>ZUMAIA:</b>	Golden Gate	943 86 50 20
	ILS	943 74 40 40	<b>MUTRIKU:</b>	Gogoz	943 60 43 58
<b>OÑATE:</b>	Sounds Great	943 78 20 91			



## KONTSUMO ARDURATSUAREN V. AZOKA

URRIAREN 17AN  
10.00ETATIK 14.30ERA  
UNZAGA PLAZAN, EIBAR

MARTXAN JARRI!

- Tokiko elikagai eta produktuen salmenta
- Finantza etikoak
- Energia berriztagarriak
- Bizikleten konponketa
- Produktu jasangarriak eta bertzikatuak
- Mugikorren birziklapena
- Umeentzako ipuin kontalaria
- Musika
- Erakusketak
- Saski zozketa





**Mekola**  
S.COOP.

**EIBAR**

**LASTER  
ERAIKIKO DIRA**

**AUKERA  
EZIN  
HOBEA**



**KOKALEKU  
EZIN HOBEAN,  
EIBARKO BISTA  
ONENEKIN**

**Bat, bi eta hiru  
logelako etxebizitzak  
kooperatiban.**

KUDEAKETA:

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

FINANTZAKETA:



**Larragest**  
AGENCIA INMOBILIARIA

**bankoã** CA  
Groupe  
Crédit Agricole

**943 20 00 12 / 660 976 156**

[www.mekola.eus](http://www.mekola.eus)